


Pablo Urtasun
txirrindulariak
erretirroa hartuko
du

Kirolak >> 3



Irurtzungo antzerki zikloa gaur
abiatuko da Ion Barbarinek parte
hartzen **duen obra batekin**. Beste
bi saiorekin osatuko da zikloa

Kultura >> 14



Otsoportilloko lau, identifikatuta

Aranzadi Zientzia Elkarteak DNA probak
egin ondoren lezetik ateratako 6 hezur-
duretatik 4 identifikatu ditu:

Meliton Agirre olaztiarra, Francisco San
Roman urdindarra eta Domingo eta
Francisco San Roman ziordiarrak. >> 5

Amiantoak
kaltetutakoen
Nafarroako
elkartea
sortuko da

Asteazkenean,
17:30ean, bilera

>> 5

Urbasa-Andia
natur parkean
makina bat lan
egin dira

>> 9

Mank-ek ez du
enplegu
tailerrik
eginen

>> 5

Arte Bidek
V. arte azoka
mustuko du
gaur

>> 15



Jendea etaazienda elkarren ondoan izanen dira, nahastu gabe. ARTXIBOA


Feria egunak Altsasun

>> 7



Onddo lasterketa ez lehiakorra
Altsasun, bihar, 12:00etan

>> 13



Etxarriko eta
Altsasuko
bideak
konpontzen

>> 8



SGAk turismo produktuak
sortzeko ikastaroa antolatu du

>> 7

ZORION agurrak

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovennavarra.com
www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • **ALTSASU**
Telf./Faxa: **948 468 360** • Telefono mugikorra: **690 641 860**



June Etxegoien Zelaia
ZORIONAK printzesa!
Zure aitona eta amonaren partez.

Izaro
ZORIONAK potxola!!
Mila muxu etxekoen partez.

Izadi
ZORIONAK bihotza!! 10 urte jada!! Muxu potolo bat aitatxoren partetik.

Onintze Lz Gauna Etxagibel
Zorionaaaaakkk wapa-aaaa!! Ze ongi ibili garen aurten igelak eta urpean arrainak bilatzen! Ea 9. urte honetan zer esploratzen dugun! Muxu potoloa Beñat, aita eta amaren partez."

Hodei
ZORIONAK potxolo!! 9 urte jada!! Espero dugu ongi pasatzea ostiralean. Muxu handi handi bat. Etxekoen partez.

Bazkideek deskontua

Bakarra: 4,00€

Bazkideak: 3,50€

Lakuntza



Rock doinuak kultur etxean

Larunbatean, 19:00etan, Lakuntzako kultur etxean

Bi talde igoko dira Lakuntzako kultur etxeko oholtzara bihar. Aldebategik, Los del Rayo talde altsasuarrek *Sin alas para volar* diskoa aurkeztuko du. Bederatzi kantaz osatutako lana udaberrian aurkeztu zuten altsasuarrek. Garapena izan da, baina betiko rock esentziari eusten dio taldeak. Rock dosia osatzeko El Desvan talde iruindarra ariko da. Laukoteak *Al descubierto* diskoa aurkeztuko du, baina agian prestatzen ari den lan berriko doinuren bat entzuteko aukera izanen da.

Etxarri Aranatz

Juanpa Agirre Iruñea Kantuan kontzertuan

Angel Mariezkurrena Deskargak antolatuta, Iruñeko Baluarteako areto nagusiak laugarrenez Iruñean Kantuan jaialdia hartuko du, larunbatean, 20:00etan.

Euskal Herriko folklorea kantu eta musika moduan bilduko du emanaldiak.



Baina kontzertuak ikus-entzuleen parte hartze aktiboa bulkatuko du. Hainbat izanen dira oholtzatik pasako diren abeslariak eta horien artean Juanpa Agirre etxarriarra izanen da.

Lastailak

14-20

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Musika

Los del Rayo eta El desvan. Lastailaren 15ean, larunbatean, 19:00etan Lakuntzako kultur etxean.

Orosz Zoltán eta Kornél Horváth. Lastailaren 16an, domekan, 18:30ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Antzerkia

El chico de las zapatillas rojas. Lastailaren 14an, ostiralean, 22:00etan Irurtzungo kultur etxean. Ados teatroa.

Zinema

Florence Foster Jenkins. Lastailaren 14an, ostiralean, 22:00etan eta lastailaren 22an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Cuerpo de élite. Irailaren 20an, ostegunetan, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Bizikleta irteerak

Altsasu-Opakua-Altsasu. Lastailaren 15ean, larunbatean, 10:00etan Altsasuko San Juan plazatik. 75 km. Barranka txirrindulari taldea.

Beunde. Lastailaren 16an, domekan, 7:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 37 km. Barranka txirrindulari taldeko mendi bizikleta taldea.

Erakusketak

Grezia: ziegarik gabeko kartzela. Lastailaren 14ra arte, 17:00etatik 19:00etara, eta lastailaren 9an, igandean, egun guztian, Arbizuko udaletxeko batzar aretoan. Ekinklik.

Altsasuko V. Arte Azoka. Azaroaren 13ra astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko lortia kultur gunean. **Artebide.**

Mahai-ingurua

Memoria berreskuratzeko lau esperientzia. Lastailaren 14an, ostiralean, 19:00etan Uharte Arakilgo udaletxean. Hizlariak: Sartaguda, Agoitz, Altsasu eta Uharte Arakilgo alkateak.

Argazkilaritza


XXXI. Ferietako Argazki Rallya. Lastailaren 16an, domekan, 8:30etik 14:00etara Altsasun. Altsasuko Mendigoizaleak.

Tailerrak

Estimulazio jolasak (mahai jokoen moldaketa, bereziki kartenak). Lastailaren 18an, asteartean, 18:00etan Altsasuko jubilatuek elkartean. **Laura Moreno, Josefina Arregi** klinikako neuropsikologoa.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal



Herrira! Lastailaren 14an, ostiralean, 20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Lastailaren 16an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Pentsio duinak. Lastailaren 19an, asteazkenean, 11:00etan Altsasuko azokan. **Sasoia.**

Amiantoak kaltetuen Nafarroako elkarlearen eratze bilerak. Lastailaren 19an, asteazkenean, 17:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

Ostiralero SAIOA
9:30ean
Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara

Esataria: Alfredo

Gaurko gaiak:

- Kafe konponduz
- Ezkurdia lau t'erdian Altsasun
- Yoseikan Budoaz
- Pablo Urtasunen erretiroaz

107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus-en ON LINE

Pablo Urtasun Perez:

«Txirrindularitza uztea erabaki dut»

2003 urtean txirrindulari profesional moduan debutatu zuen Pablo Urtasun Perezek (Urdiain, 1980), Team CSC taldearekin. Kaiku, Liberty Seguros, Euskaltel-Euskadi, PinoRoad, Team Ukyo eta Funvic Soul taldeak etorri ziren ondoren, baina orain bizikleta zintzilikatzea erabaki du urdiaindarrak. Bere ibilbidearen errepasoa egin dugu.

Testua: Maider Betelu Ganboa

Txirrindulari izateari uztea erabaki duzu. Zaila da erabakia hartzea?

Badakizu hau egun batean bukatuko dela. Abendura arte kontratua dut Funvic Soul Cycles talde brasildarrarekin, baina denboraldia bukatu da eta txirrindularitza uztea erabaki dut, egoerarengatik. Urtekin geroz eta gehiago kostatzen da forma hartzea, baina behin forma hartuta, beste urtetako maila hartzen duzu. Kontua da egutegi ona ez baduzu eta erritmoa hartzeko lasterketatan ez bazara ari... jarraipen hori lortzea kosta egiten dela. Aurten hilabete asko eman ditugu lasterketarik gabe, soilik entrenatzen, eta gogorra egiten da hori. Eta irtenbiderik ikusten ez dudanez, uztea erabaki dut.

Nola hasi zinen txirrindulan?

Anaia Burunda klubean hasi zen eta berari segika hasi nintzen txirrindularitzan. Unibertsitatean filosofia ikasketekin nenbilen, baina karrerako bigarren urtean ikasketak uztea erabaki nuen eta txirrindularitzan buru-belarri aritzea. Orduan hobera joan zen gauza; lasterketekin disfrutatzen eta garaipen batzuk lortzen hasi nintzen.

CSC taldearekin debutatu zenuen profesionaletan, 2003an.

Proba txiki bat egin zidaten azkeneko lasterketatan aritzeko, bi hilabetez. Baina egiazko saltoa Kaikurekin eman nuen, 2004an, Oscar Guerreroren aginduetara. Oso oroitzen onak ditut. Talde oso txikia zen, familia bat bezalakoa. Bigarren urtean lortu genituen garaipen

batzuk. Horren talde txikia izateko emaitza nahiko onak lortu genituen. Ihesaldietan sartzea, beti borrokan ibiltzea ... horiek ziren gure aukerak.

Gero Portugalera, Liberty Seguros talde kontinentalera joan zinen.

Kaiku desagertu egin zen eta aukera hori sortu zen. Talde txikia zen, 12 txirrindularikoa. Tratua oso familiarra zen, Kaikun bezala. Egutegi ona zuten eta oso gustura aritu nintzen.

Zure lehendabiziko garaipenak iritsi ziren...

Kaikurekin Portugalen garaipen bat lortu nuen eta Libertyrekin ere beste batzuk etorri ziren. Lehenengo garaipena beti da berezia, markatzen zaitu. Baina garaipen guztiek dute zerbait. Niri Breñañan Handiko Tourrekoan lortutakoa gustatzen zait asko, lortu nuen moduan lortu nuelako eta joaten zen jendea joaten zelako. Garaipen polita izan zen, 2012an, Euskaltekin.

Euskaltel-Euskadi taldearekin (2009-2013) goi mailako probak iritsi ziren: Tourra, Giroa... Pentsatzekoa da zure ibilbideko urrezko urteak izango zirela.

Euskaltekin lehenengo mailako probatan parte hartzea lortu nuen. Horrek puntu bat gehiago ematen dizu, entrenatzeko orduan, dena ongi egiteko orduan... halako taldeekin goraka egiten duzu salto.

Gainera lau sakandar zeundeten. Gorka Verdugo, Egoi Martinez, Jorge Azanza eta zu.

28 lagunekoa talde batean lausakandak batera aritzea oso zaila da eta oso polita. Taldekideak aparte, lagunak dira eta bere xarma zuen.

Zergatik desagertu zen Euskaltel? Halako talde garrantzitsua, marea laranja sortu zuena...

Euskaltelen presak kanpoko inbertsioetako fondo bat erosi zuen, arazoak etorri ziren eta babesle moduan ezin izan zuen jarraitu, bestetik Eusko Jaurlaritzan aldaketa egon zen, krisia etorri zen... faktore guztiak elkartu ziren eta 22 urte zituen euskal taldea desagertu egin zen.

Berriro bizia atera beharrak PinoRoad taldera eraman zintuen, baina ez zen ongi atera.

Hurrengo urtetan estatuko txirrindularitzaren egoerak buelta eman go zuelakoan, 2014 urtea han salbatzea pentsatu genuen, Txilen. Baina azkenean taldeak ez zuen babeslerik eta azkenean talderik ez, hala joan zen gauza.

Baina beste irtenbide bat lortu zenuen: Japonera joan zinen, Team Ukyora.

Txilen ezagutu nuen txirrindulari baten bidez Japoniako Team Ukyo taldearekin jarri nintzen harremanetan eta urte bateko eskaintza egin zidaten, 2015erako.

Ia urte guztia Japonian egon nintzen, bertako lasterketatan, baina oso esperientzia ona izan zen. Gustuko dut Japon, bertako jendea, gauzak nola egiten diren... esperientzia ona izan zen eta oso gustura ibili nintzen. Baina urte osoa kanpoan egotea gogorra egiten da.



Herrimina, famili mina...

Etxean egotekoa naiz eta gogorra egiten zitzaidan. Aurten Japonian jarraitzeko aukera nuen baina Europan lehiatuko zen talde batera pasatu nahi nuen, etxean denbora gehiago egoteko. Eta horregatik aukeratu nuen Funvic Soul talde brasildarrean aritzea, printzipioz Europako egutegi etako probatan arituko zirelako. Kontua da azkenean oso proba gutxi egin ditugula, azkenean hiruitzuli bakarrik egin ditut eta urtea oso luze egin zait. Eta bizikleta uztea erabaki dut.

Erabakia hartuta, nola zaude?

Aitatasunak lana ematen dizu eta beste gauzetan pentsatzen jartzeko

denbora kentzen dizu. Lasai egon nahi dut orain, eta hurrengo hila-betean erabaki nahi dut zer egingo dudan. Zerbait bilatu nahi dut. Ea nondik ateratzen den gauza.

Txirrindularitzan entrenatzaile edo teknikari moduan aritzeko aukerak ikusten dituzu?

Gustatuko litzaidake. Txirrindularitza nire bizimodua izan da, nire bizitza, urte asko eman ditut bertan eta maite dudana mundua da. Hor jarraitu nahiko nuke baina zaila ikusten dut. Talde gutxi daude eta auxiliar eta txirrindulariendako toki gutxi. Nazioarteko entrenatzaile titulua daukat. Zaila dago, baina ea zerbait bilatzen dugun.

- BEROKUNTZA - NEKAZARITZA - AUTOMOZIOA -

Lakuntza

Etxera eramateko gasoleoa

Alberto Iriarte

948 576 016 - 609 421 680

JAVIER ZELAIA

Pintura eta igeltsua
Zaharberritzeak eta obra berria
Barneko dekorazioa
Aurrekontua eskatu konpromezurik gabe

648 143 615 - Altsasu

Expo Boda SAKANA

ETXER-MODA DESFILEA, ZEREMONIA ETA BARKETE ESPAZIOAK, LORE DEKORAZIOA, ESTILISMO ETA ONASUNA, ARGAZKI ERREPORTAIA ETA HAINBAT ZERBITZU ZUEN EZKONTZARAKO

Urriaren 23a
11:00 - 11:00

BORDA JATETXEA - ETXARRI ARANATZ

11:00h. Samarra, Arizcuren Fotografiaren Photocall-a **ERAKUSKETA** eta informazioa Ongietorri Aureskua

11:15h. **EMAZTEGA JANTZIEN DESFILEA** Aurkene Ormazabal diseinatzailearen kargura. Ormazkera: Alvaro Peluqueros Lore apainketa: Lorea Estetika: Xalok **MUSIKA:** Suakai Taldea

12:30h. **PRODUKTUEN ZOZKETA ETA KOKTELA** Borda jatetxearen eskutik. Sektoreko profesionalen erakusketa eta informazioa.

14:00h. Ekitaldi-Ibiera

Eskuratu zure sarrera web orrian | 3,5€

WWW.EXPOBODASAKANA.COM

Parteketa da: **Borda** **Alvaro López** **TX** **TalkyTalk**

Parteketa da: **Alvaro López** **TX** **TalkyTalk**



Raf Atxuri

astekoa

Kolonbiako korapiloa

Kolonbiako auzia munduan den luzeenetako eta sakonetakobat dugu. Saio dexteetegin-dakoak ziren herrialde hartan burdinak urtzera bidean paratzeko, baina guztietan kale, harik eta 2016koa iritsi arte. 2012an hasi ziren bozkatu berri duten aterabidea lantzen, nazioarteko aditu taldesendoa lanzale, Kuba eta Norvegia lekuko, NBE erne eta munduko potentziak ere alde. Biblia-ko profetaren esana bete eta balak bolaluma bihurtu eta ustez errazena omen zen azken koxka, hots, kontsultarena ustel atera zaie antolatzaileei. Munduan barrena “ nola liteke?” salatari bat entzun daiteke eta mota guztietako arrazoibideak asmatzen ari dira orain inkestena xalo-xalo sinetsi zuten batzuk.

Ni neroni emaitzak amorratu banau ere, ia gehiago amorratzen nau ikusteak hedabide handiek nola zerbitzatzen diguten albisteak portzelanazko azpiletan eta guzti. Hala, biktimak aipatzean FARCEk eragindakoak besterik ez dituzte gogoan, eta narkoaz ari diren angerrillaren monopolioa bailitzan saltzen dute albistea.

Bada, milaka eta milaka hilketa ere eragin dute armadak eta paramilitarrek 52 urteotan, lider sindikalista, politikoa eta indigenak barne. Narkoaz aberastu dira estatuaren inguruko hainbat talde ere eta horregatik ez dugu “narkoestatua” edo “narkoarmada” bezalakorik entzuten. Munduko sherif-a den AEBek Plan Colombia deritzanaren bidez izugarrikeria mordo gaizatu zituen. Horietako baten batek barkamenik eskatu ote du?

Eta oraingoan nola atera ataka ezin estuago honetatik? Herriaren mintzoa ez da beti gozoa suertatzen.

barrutik kanpora

Urriak 1, Nazioarteko Adinekoen Eguna: Pentsio duinak izateko eskubidea

Urriaren 1ean Nazioarteko Adinekoen eguna ospatu zen. Urtero moduan, Nafarroako Adinekoen Koordinakundeak dagozkigun arazo eta aldarrikapenak kalera-tzeko ekimena burutu zuen. Foruen oroitarrian hasi eta Iruñeko udaletxeko plazan bukatu zen manifa. Zorritzarez, ez dugu esango jendetsua izan zenik, baina bai zaratsua eta aldarrikatzailea. Datorkigula dirudienare-

kin isilik ezin gelditu.

Bukaeran irakurri zen agirian salatu ziren adinekoen arazoak eta bereziki pentsioei dagozkienak. Gobernuak neurririk gabe erabili du “Pentsioen Itsulapikoa” eta diruaren kopurua hutsaren hurrengora murriztu da. 2011ren amaieran zituen 68.815 milioitik 24.207 besterik ez dagelditzen. Pentsiorik gabe gelditzeko beldurra areagotuz doa eta Sistema Publi-

koaren gaitzesleak Pentsio Sistema Publikoa jasangaitza dela esaten digute eta murrizketak behar beharrezkoak izango direla.

Salatu eta garbi uzten da Gizarte Segurantzako diru sarreraren murrizketa ez dakiola pentsionisten bizi-itxaropen luzeagoari. Langabeziaren gorakada, soldaten beharrekada, kotizazioen murrizketak, salbuespen politikak, iruzurrak... dira diru iturri hori

murrizten dutenak. Ez gaude baliabide eskasiaren aurrean, horien banaketa okerraren aurrean baizik. Gure diru sarrerek beharrekada jasan duten bitartean, aberatsen gorakada lotsagarria izan dute.

Pentsio duinak izateko dugun Konstituzio-eskubidea Estatuak bermatu behar digu. Baliabide Publikoak pertsona guztiak duntasunez bizi daitezen ahalbidetzeko dira, eta beraz, pentsioen euskarri ere izan behar dute. Aberatasunaren banaketaren alde egin behar dugu. Gehiengo sozialaren esku dago apustu hau irabaztea, porrota ziurra izango da saiatzen ez bagara.

SASOIA jubilatuen elkarte

hara zer dien

Eguneroko jarduerak

Dementzia duten gaixoei, denek bezala, egunerokoan zenbait errutina edo ohitura dituzte. Askotan, gaixotasunak bultzaturik, ezin dituzte ohitura horiek mantendu, eta aldatu edo ordezkatu beharrean aurkitzen dira. Pixkanaka jana-

ria prestatzeari, gidatzeari, biloben bila joateari, erosketak egiteari... uzten zaio. Zer egin orduan? Ohitura berriak, errutina berriak bilatu. Errutinek gure egunerokoa eraikitzen dute, pertsona bihurtzen gaituzte.

Hona hemen dementzia duten pertsonen egunerokoan txertatu daitezkeen hainbat jarduerak edo ohitura osasungarri (hobe ordutegiak ere mantentzen badira):

-Egunerok paseatzera atera edo jarduerak fisikoki egin (posible ez bada, hanka eta besoak mugimendu pasiboekin landu).

-Beste pertsona batzuekin hizketaldiak edo kontaktua mantendu (posible ez bada, kontaktu fisikoki gutxienez).

-Ahal den neurrian, etxeko lanean lagundu.

-Norberaren garbiketan lagundu.

-Taldea jardueretan parte hartu: psikoestimulazioa, musika entzutea, margotzea, hitz egitea edo barre egitea.

Burmuinak ondo pasatzeko eta bizitzeko daukan gaitasuna indartu du gure jarduerekin, baita dementzia eta, ondorioz, mugak dituzten gure familiar tekoenak ere.

Josefina Arregi Klinika

gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun guztiak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko

goizeko hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Zure iritzia helarazteko: **Foru plaza, 23, 1 Altsasu**
gutunak@guaixe.eus | 948 564 275 telefonoa.

Argi gera dadila

Teresa Saenz Mendez

Gure Ametsa, jubilatuen eta pentsiodunen elkartearen presidentea

Gure Ametsa elkarteak Etxarri Aranazko herriari gauzak argi utzi nahi dizkio.

A) Denok jakitun gara (...) beilatokia jartzeko asmoa dagoela.

B) Jakinadenez, eraikineko aldamenak ez daude erabakiarekin ados. Horregatik sinadurak jaso zituzten, udalari aurkeztutako idatzari gehitu zizkietenak. (...)

Gaiak ukitutakoak eskubidea dute aurka azaltzeko, nahiz eta hura jarri nahi dutenek udalaren baimena izan. (...) Elkarteak ordezkariak udalarekin bildu zen, (...) elkartearekiko gaia zertan zen jakiteko eta jakinarazteko elkarteak inoiz ez duela beilatokiaren ez aldeko ez kontrako jarraitu hartu. Eta etorkizunean ere ez du egingen. (...) Esandakoak esanda

ere, euren iritzia eman duten bazkideak egon daitezke. Haien eskubidea da.

Baina burugabekeria ez da hemen bukatzen (...) bakarren batek edo batzuk udalak elkartearen presionatu duenaren zurrumurrua zabaldu dute. Ustez elkartearen udalaren baimen ematearen alde jartzeko. Gezurrada. Elkartearen dako, zorionez, bi aldeen arteko harremana elkarrekiko errespetuzkoa da (...)

Horregatik, ondorioztatzen ari gara bakarren batek gezur horiek elkartearen kaltetzeko zabalitzen ari dela. Oso larria da hori, kontuan izanik erakundeak adinduekin egiten duen gizarte lana. Izan ere, elkarterik ez balego pertsona asko ez lirateke etxetik aterako eta bizi kalitate handia galduko luke.

Beraz, elkartearen eta bere bazkideen onurarako, mesedez, utzi gezurrezko gertakarien gogoetarik. Nahikoa zaila da guztia ahalik eta

hobekien funtzionatzea, ez dauden arazoak gehitzeko.

Artikuluak, osorik: www.guaixe.eus

Ixiltasuna bukatu da

Maite San Roman Goikoetxea

Francisco San Roman Galbeteren familiaren izenean

80 urteren ondoren, azken aste hauetan jakin dugu Otsoportillo kolezean (...) identifikatutako gorpuzkintako bat gure aitona dela. Urte luze hauetako ixiltasuna eta ziurtasuneza nolabait bukatu dela esan dezakegu. Baina bidea luzea izan da. 1936ko irailaren 25ean gure aitona Urdiaindik, etxetik, eraman zuten emaztea eta 4 seme alabak aurrean zirela. Bera bezala, haien ideiak defendatzeagatik, hainbat sakandar ere erail ondoren Otsoportillo edo beste lezetara bota zituzten.

Familia askorendako Otsoportillo

llo oroimen eta askatasun topaleku izan da eta izango da 1980tik hasita. Urte haietan egindako lanari esker, familia hau handitzen joan da eta horregatik lorpen handi hau denona izan da: lehen harria jarri zuten haiena, ondoan egon diren erakundeena, eraildakofamilia guztiena, urtero gurera gerturatzzen ziren hoiena... orokorrean egi osoa bilatzen egon garen guttiona! ZORIONAK!

Egun hauetan protagonistak beraien ideiak defendatzeagatik erail zituzten gizonezkoak izan arren, hausnarketa sakon batekin beharrean gaude. Ez inditugu ahatu istorio hauen itzalpean hamai-ka emakume egon direla. Hamai-ka emakume, indarrez eta keme- nez bizitzari aurre egiteaz gain, beraien seme alabak askatasunean, zintzotasunean, justizian eta maitasunean hezi zituztenak.

Bukatzeko, argi utzi nahi dugu, hau hasiera besterik ez dela izan. Hartutako konpromisoa berretsi eta Otsoportillon zein bestelako lezetan dauden gorpuzkinak identifikatu eta egia osoa jakin arte lanean jarraituko dugula. Eskerrik asko eta Zorionak!

Artikuluak, osorik: www.guaixe.eus

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILA: Ruben Imaz Alcaide • maketazioa@guaixe.eus
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus

ZUZENTZAILA: Maria Luisa Zelaia
ARGITARATZAILA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus
DISEINU ZERBITZUA: GK• Ainhoe Etxeberria Pikabea • gk@gkomunikazioa.eus
ADMINISTRATZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • admin@guaixe.eus

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK 

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
Hizkuntza Politikako Sailburuordetza

IHABARREN OMENALDIA: Carmen eta Patxi Irañeta anai-arrebak hilaren 22an omenduko dituzte sorlekuan, Ihabarren. Biak ere 1976an Kolonbiara kooperante

gisa lanera joan eta han hil ziren. Omenaldi egitarauan herri bazkaria izanen da. Atzo despeditu zen izena emateko epea.

sakanerria >>

>> **Uharte Arakil / Urdiain / Altsasu / Olatzagutia / Ziordia**

Otsoportilloko lezeko lau, identifikatuta

Aranzadi Zientzia Elkarteko kideak Otsoportilloko lezetik gutxienez sei pertsonen hezurak atera zituzten.

Egun berean eraildako senideei DNA laginak hartu zizkieten. Zientzialarien lanak emaitza eman du eta Otsoportillon eraildako lau zein diren identifikatzea lortu dute: Meliton Agirre Lezea olaztiarra, Francisco San Roman Galbete urdindarra eta Domingo eta Francisco San Roman Otxoa anai ziodiarrak. Emaitzak jakin ondoren Nafarroako Gobernuaren senideekin harremanetan jarri da, hezurak emateko protokoloa ezarri eta aktibatzeko.

Aranzadik jakinarazi du Iberoko hobotik berreskuraturako beste hezurdura bat Iruñeko zinegotzi batena dela. Aurretik Victor Martiarena Irañeta uhartearraren hezurdura identifikatu zuten. Han egon beharko luketen Silverio Astiz Ezkurdia eta Silverio Astiz Lakuntza aita-seme uhartearen gorpua identifikatzea falta da.



Ateratako hezurren aurrean Etxeberría forentsea argibideak ematen. ARTXIBOA

Zein da zein

Meliton Agirre Lezea

1895eko martxoaren 10ean jaio zen Martina eta Lorenzoren semea Olatzagutian. Teresa Gastaminza Goikoetxearekin ezkondu zen eta 5 seme-alaba izan zituzten. Porlandegiko langilea zen, UGTko kide eta buru. 41 urte zituela erail zuten 1936ko agorriaren 24an.

Francisco San Roman Galbete

Urdiaindarra. Josefaren eta Juan Estebanen semea 1901eko maiatzaren 20an jaio zen Altsasun. Maria Goikoetxea Solanarekin ezkondua, lauseme-alaba izan zituzten (Miguel, Ruperto, Josefa eta M^ñ Rosalia). Porlandegian lan egiten zuen. 1936ko irailaren 25ean fusilatu zuten. Hil zutenean 35 urte zituen.

Domingo San Roman Otxoa

1898ko garilaren 6an jaio zen Tomasaren eta Pedro Migelen semea Ziordian. Ezkongabea zen. Porlandegian lan egiten zuen eta UGTko kidea zen. 38 urterekin hil zuten 1936ko irailaren 5ean. Haren anaia Francisco ere erail zuten.

Francisco San Roman Otxoa

Tomasaren eta Pedro Migelen semea 1902ko azaroaren 1ean jaio zen Ziordian. Ezkongabea. Porlandegian lan egiten zuen eta UGTko kidea zen. 1936ko irailaren 6an fusilatu zuten, 34 urte zituela. Haren anaia Domingo ere horrela hil zuten.

>> **Uharte Arakil**

Arakil Memoria berreskuratzeko lau esperientzia

Gaur, 19:00etan, udaletxean

Mahai-inguruan lau alkate elkartuko dira gaur Uharte Arakilgo udaletxean: Sartagudako Pablo Albane, Agoizko Unai Lako, Altsasuko Javier Ollo eta Uharte Arakilgo Ainara Aiestaran. Lau herrietan 1936an alkateak erail zituzten. Horretaz aparte, lau etan herritarrek errepresioa pairatu zuten. Lau alkateek zeinek bere herriko orduko errealitatearen berri emanen du. Horrekin batera, orduko kargu publiko-ek bizi izandakoa aipatuko dute eta, azkenik, memoria berreskuratzeko herri bakoitzean zer bide lantzen ari diren aipatuko dute. Mahai-ingurua Uharte Arakil, 80 urtez memoria galtzen taldeak antolatu du.

SAKANA

Amiantoak kaltetutako en elkartea jendaurrera

Asteazkenean, 17:30ean, Altsasuko Gure Etxea eraikinean izanen da eratze bilera. Amiantoarekin eta bestelako gai arriskutsuekin lan egin duten pertsonak gonbidatu dituzte

Azaroa akaberan hasi ziren biltzen amiantoarekin lan egin eta kaltetutakoak. Hainbat bilera egin dituzte ordutik eta iritsi da amiantoak kal-



tetuen Nafarroako elkarteak sortzeko garaia. Eratze batzordean Nafarroako elkarteak zuzendaritza aukeratu da. Elkartearen sustatzaileen iritziz, amiantoak eragindako

gaitzen ondorioei elkarrekin aurre eginda helburuak lortzeko aukera gehiago izanen dituzte. Izan ere, "inongo babes neurririk gabe aritu ginen amiantoarekin lanean". Elkarte berriaren sortzeko prozesuan Euskal Autonomia Elkarteak amiantoak kaltetutakoak biltzen dituen Asvimie elkarteak Jesus Uzkudunen laguntza izan dute. Hark gaitzatu duenez, amiantoak erabili duten enpresek hura erabili duten langileen zerrendak osatu behar dute. "Batzue-

tanez da betetzen edo ez dira amiantoarekin lan egin duten langile guztiak agertzen. Beraz, norbera arduratu behar da zerrenda horretan dagoela ziurtatzeko. Horrek gaitzak justifikatzen laguntzen du". Horretarako, Lan Osasunerako Institutura jo beharra dago. Uzkudunek gaitzatu zenez, "lanetik eratorritako gaitzek ez dute epe mugarik" eta bere senarraren lanerako jantziak garbituz gaixotutako 81 urteko emakumearen adibidea jarri zuten.

>>

Ez da enplegu tailerrik eginen

Haren bukaeran hiru ikasle kontratatuko zituen kolaboratzaile batek atzera egin eta ordezkorik ezin izan da topatu

Sakanako Mankomunitateak aurtengo hiri eta industria hondakinen kudeaketarako eskola-tailerra antolatu behar zuen. Horretarako, Mank-ek Ecogras Recuperación y Reciclado, Kerabi Gestión Medioambiental, S.L. eta Vermican Soluciones de

Compostaje, S.L. enpresekin batera proiektua egin zuten. Baita Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza jaso ere. 15 langabe sakandar trebatu behar ziren. Baina eskola tailerreko erakunde kolaboratzaileetako batek, Vermi-

can-ek, jakinarazi zuen ezin izanen zuela tailerraren akaberan hiru ikasle kontratatu. Eskola tailerraren helburuak betetzeko oinarrietako baten faltan, Mank-eko arduradunak beste enpresa batzuetako ateak jo zituzte, baina alferrik izan da.

Amaya
Okindegia-gozotegia

ARAIA 945 314 572

ALTSASU

- Lantegia: Texeria aldapa 948 562 205
- Zumalakarregi plaza 948 468 026
- Amaya supermerkatua

Otadiako Kristo Deuna plaza, 19. 948 562 185

- Gipuzkoa 4
- San Juan kalea 50. 948 564 053
- Netto 659 288 401

okindegia - gozotegia - kafetegia - ogia - pastelak - kafea - txokolatea - pastak - bonboiak...

ALTSASU **OLAZTI** **ETXARRI ARANATZ**

948 468 755 948 461 660

>> Irurtzun

Irurtzun Gaztetxokoa zabalik

Joan den ikasturtean 60 bat bazkide izan zituen, irurtzundarrak eta ingurukoak. Neska-mutilek asko estimatzen eta baloratzen duten zerbitzua da

Pasa den ostiralean zabaldu zituen, atzera ere, ateak Irurtzongo Gaztetxokoak. Udazkenean ateak irekitzearekin batera Irurtzongo eta inguruko herrietako gazteei gonbidapena luzatu diete lokala eza-gutu eta bazkide egiteko. Udaberri bukaera bitartean gazteek aisiaz disfrutatzeak aukera izanen dutela ziurtatu dute.

Dagoeneko 6 urte dira Irurtzongo Udalak Gaztetxokoa martxan jarri zuela. 12 eta 15 urte bitarteko gazteei zuzendutako zerbitzua eta lokala da. Han aisialdia eta denbora libreaz gozatzeko



aukera dute. Alde batetik, joko librean aritzea dute. Izan ere, egoitzan daudela gaztetxoek erabakitzen dute arratsaldean zertan eman: mahai jokoak, ping-ponga, ordenagailua, futbolina... Bestetik, hezitzaileek gazteen interesak kontuan hartuta haien gogoko ekime-

nak antolatzen dituzte: lehiaketak, zineforuma, eskulan tailerrak, ikastaroak...

Udal zerbitzuaren kudeaketan Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak laguntzen du. Gaztetxokoaren helburuak, aisialdi osasuntsua susta-

Ordutegia

Ostiralean
17:00etatik 22:00etara.
Larunbatetan
16:00etatik 22:30era.
Igandeetan
16:00etatik 21:00etara.

tzeaz aparte, nerabezaroan eman daitezkeen arrisku desberdinen prebentzioa eta detekzioa dira. Hori dela eta, garrantzitsua jotzen dute zerbitzua gaztetxoek eskura egotea, haien beharretara egokitutako eremu babestua delako. Gurasoek informazioa eskuratu eta zalantzak argitzeko Gizarte Zerbitzutara jo dezakete.

>> Altsasu

Bularra ematearen onurak kolorez azpimarratuta

Haurrei bularra ematearen munduko astea dela eta, Altsasuko osasun etxeko pediatriako itxaron gelan haurrek egindako marrazki erakusketa dago ikusgai.

Medikura doan edozein umekegin ditzake marrazkiak, horretarako materiala eskura baitu. Altsasuko osasun etxeko Pediatria Zerbitzutik azpimarratu dutenez, "posible den guztietan, garrantzitsua da umeen lehen sei hilabeteetan soilik bularra ematea, eta adin horretatik aurrera osagarria izatea". Zalantzarik izanez gero pediatria-

ko zerbitzuarekin harremanetan jartzeko gonbidapena egin dute.

Osasunaren Mundu Erakundeak eta Unicefek 1992tik antolatzen dute bularra ematearen munduko astea. Aurtengo leloa honakoa da: amagandiko edoskitzea garapen jasangarrirako gakoa. Erakunde antolatzaileen iritziz idoskitzea osasun publikoko gai bat da, umeak hobe elikatzen direlako, infekzio edota alergiaen kontra ona delako eta metabolismoaren erregulatzailerako.



Marrazkiekin batera kartelak jarri dituzte itxaron gelan. UTZITAKOIA

>> Arbizu



Plaza bete jende Txistor egunean.

Jende asko txistorraren usaira

Igandean jendetza bildu zen Arbizun Txistor egunak erakarrita.

Trikitilarien doinu lagun, primerakogiroa izan zen Arbizuko karriketan. Plazan, ohidenez, txistor pintxoak eta ardoa eskuratzeko aukera izan zuten bisitariak. 120 kilo txistor prestatu ziren pintxotarako, Embutidos Arbizu, Flores hes-tekiak eta Laketek emanak. Eta inorgosez ez uzteko, aurten ere euskal txerri bat erre zuten eta pintxotan banatu. Garbian 110 kilo pisatu zituen txerriak eta 11 ordutan erretzen egon ondoren makina bat pertsona izan ziren hura dastatu zutenak. Ez zen alerik gelditu. Azokan

makina bat salgai izan ziren eta txerri zatiak nola lantzen ziren eta gazta nola egiten den zuzenean ikusteko aukera izan zen.

Txistor pintxo lehiaketara zapi proposamen aurkeztu ziren. Karrika tabernako sukaldari Mikaela Etxeberriak aurkeztutako Ipurgorri izan zen epaimahaiak saritu zuen; patataz, piper kremaz, goxatutako tipulaz eta txistorraz egin zegoen. Arbizuko Udala oso kontentu zegoen festaren erantzunarekin eta festa "herritarren inplikazio eta lanarengatik" posible dela nabarmendu zuen.

>> Bakaiku



2 edo 4 gurpileko katxarroak. Baita gurpilik gabekoak ere izan ziren.

Katxarro eta jende asko

150 auto, 40 moto, 30 bizikleta, 3 kamioi, 2 traktor eta trilladora eta aroztegi motorrak izan ziren ikusgai II. Katxarro Egunean

Aurreko urteko Katxarro Eguna gaintitu zuen aurtengoak. Bakarrekoetxea elkarrekin Kotxkotabernaren laguntzarekin antolatutako II. Katxarro Eguna ikusgarria izan zen. "Eta jende ugari etorri zen, Sakanatik eta baita Iruñeatik ere. Festetako larunbatean baino jende gehiago zegoen" adierazi dute antolakuntzatik. Azpimarratzekoa da Ignazio Arbizuk bere bildumako trilladoren motoreak eta Ezkarotzeko aroztegi bateko motorrak eraman zituela.

Bildutako ibilgailu klasikoe-kin 20 km inguruko ibilbidea egin zuten Sakanatik barna, eta bakoitzari argazki pertsonalizatu bat atera zitzaion "2017an bidaliko diegu, gonbidatzeko". Ondoren bazkaltzera bildu ziren, elkartean.

Hiru sari banatu ziren. Katxarro bitxienaren saria Ignazio Arbizuren motorrek jaso zuten. Urrutitik etorritako katxarroaren saria Soriako bikote batek jaso zuen, Seat 124 familiarrarekin bertatik etortzeagatik, eta katxarro zaharrena- ren saria Zumaiako familia batek jaso zuen, 1920 urteko bizikleta bildumarengatik. +www.guaixe.eus

>> Altsasu

Konponketa lanak Aita Barandiaran egoitzan

Pertsonen Autonomia eta Garape- nerako Nafarroako Agentziak Aita Barandiaran adinduen egoitzan konponketa lanak egingen ditu. Zehazki, sarrera gaineko terraza iragan- gaitz bihurtzeko lanak eta ate pare- ko egongelako leihoak aldatuko dituzte. Lanek 25.000 euroko aurre- kontua dute. Egoitzak apirilaren 30ean 25 urte bete zituen. Hori dela eta hilaren 26rako jardunaldi bat izanen da Altsasun.

SAKANA

88.888 euro eskola kontzentrazioendako

Nafarroako Gobernuak eskola kon- tzentrazioak dituzten udalei eman beharreko diru-laguntzak onartu ditu. 36 eskoletan haien herrietako ez aparte beste herrietako ikasleak hartzen dituzte Haur Hezkuntzan, Lehen Hez- kuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako aurreneko bi mailetan. Guztira 3.412 ikasle nafar dira. Due- la hamarkada batzuk hainbat esko- la itxi ondoren sortu ziren eskola kon- tzentrazioak eta haien artean 1.060.449 euro banatu koditu gober- nuak, eraikinen mantentura bidera- tzeko. Sakanan hiru eskola kontzen- trazio daude: Irurtzunen, Etxarri Ara- natzen eta Olatzagutian.

Diru-laguntzak		
Udala	Ikasleak	Laguntza
Irurtzun	213	66.200
Etxarri Aranatz	69	21.445
Olatzagutia	4	1.243
Guztira:	286	88.888

>> Etxarri Aranatz



Plaza bete ziza eta landare

Hartzabal elkarteko eta Larrañeta- ko mendi taldeko botanikaren eta mikologiaren zale diren 25 pertso- nen lanari esker, igandean ziza eta landare erakusketa ederra ikuste- ko aukera izan zen plazan. 203na ziza eta landare ikusgai izan ziren mahaitan. Etxarrin mikologia sus- tatu zuten Bixente Garziandia, Bar- tze, eta Jose Luis Etxeberri omenez- ko erakusketa izan zen. Bestalde, zizak dastatzeko aukera ere izan zen bai tabernetan bai plazan.

» Altsasu

Feria egunak

Jolas eta jokoekin hasiko dira feriak Altsasan.

Peñen batzordeak haurrendako jolasekin batera pilotari profesio-
nalak ere izanen baitira. Larunba-
tekoa parranda eguna da, baina
korrika proban parte hartuz hasi-
ko dute askok. Bertso-poteoak herri
bazkariari segida eman eta bazkal
ondorengo kantu-jirak eta kaleji-
rak dantzaldira bilduko ditu altsa-

Egitaraua

»» **Lastailak 14, ostirala**
18:00etan Txupinazoa, haurrendako
jolasak eta txokolate-jana, Foru plazan.
Antolatzen du: Peñen batzordeak.
22:00etan Pilota profesional jaialdia:
Mendizabal III.-Zabaleta-Elezkano II-
Errezusta. Ezkudia-Retegi bi.
22:00etan Gaurkotasuneko zinema: .

»» **Lastailak 15, larunbata**
11:00etan Altsasuko ferietako ikastetxe-
en arteko XXXVII. Krosa. Irteera: Foru
plaza. Antolatzaila: Dantzaleku Sakana
Kluba.
12:00etan IX. Onddo Lasterketa. (ez
lehiakorra). Irteera: Foru plaza. Antolatzen
du: Dantzaleku Sakana Klubak.

suarrak eta bisitariak. Ordu txikiak
arte luzatuko dute askok parran-
da.

Domekan feria egun handia izan-
en da. Ferialeku kalean Pirinioe-
takobehien eta latxaardien erakus-
ketak izanen dira. Aurreneko eta-
tik 51 buru eta bigarrenetatik 10
arsaldo. Zaldi-azienda, berri, Zelai
kalean izanen da. Lehiaketara 55
buru aurkeztu dira. Eta gainera, azo-

kan beste hainbat buru izanen dira.
Ohi bezala, Gartzia Ximenez, Foru
plazan eta Otadiko kristo deuna pla-
zan artisauen eta nekazarien pos-
tuekin batera, lehen sektoreko
makineria ikusgai izanen da, guz-
tira 80 postu. Bisitariak haietan begi-
ratuz gero pateak, eztiak, babarrunak,
ogia, pastelak, gazta, kontserbak,
txistorra, taloak, txokolateak, hes-
tebeteak, eta abar opatuko dituzte.



Zaldi azienda, atzera ere, Zelai kalean izanen da.

Baratzakobide plazan.

Mikologia erakusketa Labadero
eraikinean. Antolatzen du: Altsasuko
Mikologia Elkartea.
XXX. Argazki rallya. Antolatzen du:
Altsasuko Mendigoizaleak.
Sakanako V. Arte Azoka. Iortia
Kulturgunean. Antolatzen du: Artebide
Taldea.
10:00etatik 13:30era Ibilaldiak zaldiz,
txikiendako, Zubeztia Plazan.
12:00etatik 14:00etara Kalejira
Sakaranga txarangarekin.
18:30etik 19:30era Enrike Zelaia-
ri omenaldi kontzertua: Orosz Zoltán eta
Kornél Horváth, Iortia Kulturgunean.
19:30etik 21:30era Musika animazioa,
Ken bat taldearekin, Foru Plazan.
20:10ean Gaurkotasuneko zinema:
Florence Foster Jenkins.

21:30ean Zezensuzkoa, Foru Plazan.

OHARRA: Zezensuzkoa. Zezensuzkoan
parte hartzea erabat borondatezkoa da.
Gomendatzen da arduraz jokatzeko eta
segurtasun-tartea gordetzea. Udalak ez
ditu bere gain hartuko zezensuzkoak
pertsonei eragindako kalteak, ez eta
jantzetan eragindako kalte materialak ere,
besteak beste.

Ganadu azokan ezinbestekoa da arduraz
jokatzeko, azokako animalien gaindik
segurtasun-tartea gordetzea. Udalak ez dituzte
bere gain hartuko pertsonen eragindako
kalteak, ez eta kalte materialak ere.

Ferietan ere berdin: etxeko eta familiako
ardurak denonak. Ezezkoak ezetz esan
nahi du beti. Eratorik ez.

SAKANA

Turismo-produktuak sortzen ikasteko ikastaroa

Honakoak dira helburuak: haien diseinu prozesua ulertu; ibarreko turismo produktuei kalitate, berrikuntza eta jasagarritasun irizpideak txertatzeko ahalmena izan eta Sakanako produktuak sustatu eta merkaturatzeko mezu eta kanal egokien ezagutza

Sakanako Garapen Agentziak (SGA) turismo produktuak disei-
natu, garatu, promozionatu eta
banatzeko prestakuntza ikasta-
roa antolatu du. SGako turismo
teknikari Paki Urbitarte Cabre-
rak azaldu duenez, “helmuga
turistikoa sortu eta posiziona-
tzeko modurik hoberena erakar-
garri diren kalitatezko produk-
tu turistikoak izatea da, bisitaria-
ri bere egonaldiaz disfrutatzea
ahalbidetuko diotenak eta toki-
ko ekonomian eragina izango
dutenak”.

Urbitartek gaineratu duene-
nez, produktu horiek diseinatze-
an ez da nahikoa izanen irizpide



Turismo arloan lan egiten dutenek berriki Sakanako baliabideak ezagutzeko ikastaro batean parte hartu dute.

batzuk segitzea, bideragarriak
izan beharko dute eta haiek pro-
mozionatzen eta zabaltzen jakin
beharko dugu, produktuak turis-
tengana iritsi daitezen”. Ikasta-
roa Sakanako turismo eragile
publiko eta pribatuei zuzenduta
dago. Dohainik da. 20 plaza bes-
terik ez dira izanen (lehentasu-

na ibarreko turismo eragileek
dute). Susana Condek emanen
du ikastaroa. Bera Agrotavel
Turismo Responsable enpresan
zuzendaria eta sortzailea da.
Ikastaroan erabilitako material
guztia ikasleei emanen zaie, bai-
ta tailerlean jasotako ondorioak
ere, ikastaroan egindako lana
aurrera begirako ekintzetarako
baliagarria izan dadin. SGak
ikastaroa Ekonomia Garapenera-
ko Departamentuaren laguntzaz
antolatu du.

Datak

Lastailaren 26an.
Azaroaren 2an, 9an eta 16an.
Asteazkenak, 16:00etatik
20:00etara. Utzугanen, Arbi-
zuko industrialdean.

» Arakil / Irurtzun

DSS16ko Biziz enbaxada pasa zen

Donostia 2016 Europako kultur
hiriburutzaren programetako bat da
Biziz. Garagarzaroko azken astetik
irailaren erdialdera hiriburutzak
sustatutako bost bizikleta konboik
kontinentea zeharkatu dute. Gastro-
nomiakoa Atenas eta Donostia arte-
ko aritu zen. Oskian barna Irurtzu-
nera irailaren 14an iritsi ziren. Atse-
den hartu eta hurrengo egunean
Donostiara bideari ekin zioten.
18an iritsi ziren. +www.guaixe.eus

www.txartel.net
ON-LINE DENDA ZABALIK
948 564 002 Bakea kalea, Altsasu

KOPIAGINTZA ZERBITZUAK

TIENDA ON-LINE

TEL: (+34) 948 564 002

SERVICIOS DE COPIAS

SELOS AUTOCENTRABLES

OFERTAS DE LA SEMANA

TARJETAS DE VISITA

15,00 €

Txalaparta

Taberna

ferietan... azken guda dantza

948 467 070

Zumalakarregi plaza

ALTSASU

Sorgiñak

LAKUNTZA

948 576 357

>> Altsasu

Konponketa, birziklatzeko beste modu bat

Etxean hautsita dauden gauzak dituztenak eta haiek konpontzen dakitenak elkartu nahi ditu Kafe Konpondu ekimenak. Hurrengo bost asteazkenetan, 18:00etatik 20:00etara, Gure Etxea eraikineko lehen solairuko gela batean elkartuko dira

Altsasuko Udalaren jardueren eskaintzaren barruan ekonomia-garapenari buruzko atala dago eta Kafe Konpondu jardura eskaintzen du. Batuta elkarrekin, Sakanako birziklatze laborategiak, gidatuko du jardura. Kafe Konpondu horizer denazaldu digu Javi Bergarak.

“Bi helburu ditu. Batetik, aldamenekoekin harremanak egitea. Horretarako, behar bada kafetxo bat, infusio bat edo zerbait behar dugu. Bestetik, etxean hautsita dauden gauzak konpontzea. Konpondu haien bizitza luzatzen saiatzea. Ez dadila izan soilik eraman eta norbaitek katxarroa konpontzea. Baizik eta etxean botatzeko zeuden gauzak zuk zeuk konpontzea, laguntzarekin”.

Holandan sortutako ekimena da Kafe Konpondurena. Berrera-bili, birziklatu eta kontsumoa murriztea filosofiaren barruan kokatzen da. Jendearen pentsae-



Objektuak konpontzeko ideiak eta praktika tartekatuko dira Kafe Konpondun.

ran eragin nahi duen jardura da: “Ezingara gaurko erritmoan bizi: gauzak erosi eta bota, erosi eta bota. Ez dago lehengai nahikorik. Eta, agian, ez dago horretarako dirurik”. Txipa aldatu beharra dagoela aldarrikatu du: “batzuetan hautsitako gauzak konpontzea, tontakeriak dira, baina nola egin jakin behar da. Edo tresnak behar dira”.

Egitura autonomo bihurtzeko jaioa

Horretarako toki baten beharra

dagoela nabarmendu du Bergarak: “etxean hautsita daukazuna eraman eta, gutxienez, han konpontzen saiatzeko. Eta bide batez konponketa nola egin ikasteko”. Sakanako birziklatze laborategiak Kafe Konponduko hasierako bost saioak gidatuko ditu. Baina Bergarak gaztigatzen duenez, “ez da ikastaro arrunt bat. Espazio bat da. Batzuk hautsitako gauzak eramanen dituzte eta dakitenek nola konpondu azalduko dute”. Horretarako, elektrizitateaz, zurgintzaz, iturgintzaz, joskintzaz... dakiten

boluntarioak egon beharko luke. Harremanak sortzearen inguruan, Bergarak adibidea eman du: “ezin duzu hautsita dagoen bainuontzia eraman, baina konpontzen dakiena etxera joan daiteke”. Hasierako saioek ere Kafe Konponduren funtzionamendu autonomoa zehazteko baliokodute. “Denen artean espazio hori nola kudeatuko den zehaztuko dugu”.

Baina, Bergarak azaldu duenez, “etorkizuneko ametsa da herriko jendea elkartzeko toki bat lortzea litzateke. Eta hara bi pertsona mota joatea: gauzak konpontzen dakitenak, ordu bat edo aldamenei erakusten eskainiko duena batetik. Astean edo hila-betea behin? Maiztasuna zehaztu beharko litzateke. Eta, bestetik, etxean apurtutako gauzak dituzten eta eramaten dituzten pertsonak. Altsasuarrak edo sakandarrak leku batean elkartzea eta auzolanean aritzea”. Sakanan herriz herri Kafe Konpondu saioetara joan liteken presatutako furgoneta bat, “zergatik ez”, galdetu du Bergarak. Ideia martxan jartzeko espazioa uzteagatik Altsasuko Udalari eskerak eman dizkio.

SAKANA

Ur-Zerbitzuko lanpostua betetzeko oposizio-lehiaketa deialdia egin

Eskabideak Mank-en Lakuntzako egoitzan aurkezteko 30 eguneko epea asteartean hasi zen

Sakanako Mankomunitateko Ur-Zerbitzuan (behe sarean) ofizial izateko lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez beteko du. Horretarako deialdia egin da. Gainera, hautapen prozesua gainditzen dutenekin Mank-ek lan poltsa sortuko du, puntuazio ordenari zorrotz jarraituz, eta indarrean izanen da 5 urtez edo beste deialdi bat egin bitartean. Langile berria lan-kontratudun finkoa izanen da eta C mailari dagokion oinarriko lantsaria izanen du.

+www.guaixe.eus

>> Lakuntza

Euskara irakasle baten premian

Lakuntzako Udalak jakinarazi duenez, euskara irakasle bat behar da. Haren egitekoa hasierako mailako ikasle talde bati euskara klaseak ematea izanen litzateke. Saioak astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan izanen dira, ordu eta erdiz egunero. Interesa duten pertsonak astelehenera arteko epea dute Lakuntzako udaletxean izena emateko.

>>

Puigdemont-ek badu Sakanaren berri

Lakuntzako alkate Patxi Xabier Razkin eta beste hainbat herritar Sant Sadurn d'Anoia izan zen asteburuan. Hango alkateak, Maria Rosellek, Cava Tast azokara gonbidatu zuen. Cava eta gastronomia dastaketari eskainitako azokaren 20. edizioa izan da asteburukoa. Razkinek bazekien ekitaldi batean Kataluniako presidente Carles Puigdemontekin bat egingen zuela. Horregatik, ibarreko turismo ikurra duen kamixeta eta Albi gazta zati bat oparitu zioten, “Sakanako promozio pixka bat egiteko”. Ekitaldiaren ondoren, “lasaiago, Sakanaz eta erabakitze eskubideaz eta bestez hizketatu ziren.



Razkin eta Puigdemont, ezker-eskuin.

>> Etxarri Aranatz



Epelerako bidean lanak egiten ari dira.

Bi bide konpontzen

Epelekoa eta Alzituertakoa dira. Azken horrek Bakaikurekin lotura egiten du eta oinezkoendako edo bizikletendako ibilbide gisa bultzada eman nahi zaio

Etxarri Aranazko Udal bi bide konpontzen ari da azken asteetan. Batetik, Basopokaletik Epelerako baso-bidea, hainbat soro, borda eta etxe batera sarbidea dena. Baso-bide hori egur aprobeitxamendua kateatzeko erabiltzen da ere. Egoera txarrean zegoen eta udalak egiten ari den lanekin hura txukundu, bazterrak garbitu eta asfaltatu egingen dute. Lanak udalaren, lurjabe baten eta Nafarroako Gobernuaren hitzarmen baten bidez finantzatuko dira. Bestetik, Kanpozeleitik presa zaharrarentz doan bidea egoera onean dago trenbide azpiko pasara arte. Alzituertauenditik Bakaikurekin lotura egiten duen bidea zena xenda bihurtu zegoen, egoera oso txarrean zegoen. Gainera, jendea pasatzen bazen ere, zati bat partzela pribatu bate-

tik pasatzen zen. Azken horren zati baterosi du udalak eta ondoren bidea kaskailuz egin eta bazterrak garbitu ditu. Ibai ertzean dagoen, dermiokolarreak eta basoa ondoan duen bidea izanik, Etxarri Aranazko Udalaren asmoa hura indartzea da, oinezkoek edo txirrindulariek erabil dezaten. Bide beretik joan etorrira egin daiteke, edo Bakaikurekin sartu eta dermiotik eta Aritzalkotik buelta egin.

Azkenik, uraren kudeaketaz arduratzen den Nilsa enpresa publikoak ur araztegitako bidea konpondu du. Uholdeek kaltetzen duten bidea denez, orain arteko kaskailuaren ordeztasun asfaltatu jarri dute. Bestalde, joan den astean egindako bilkurak Etxarri Aranazko Udalak Ergoienako Udalarekin hitzarmena egitea onartu zuen. Etxarri dagoen Inox Naparra enpresak bere lantegia handitu nahi du eta, horretarako, Etxarriko dermioan dagoen Dorraoko Kontzejuaren basoan sartu behar du. Bi udalen hitzarmenaren bidez baimen emateak, zergak eta bestelakoak arautu dituzte eta enpresak lantegia handitu ahalikodu.

>> Altsasu



Bi bide bazter garbituko ditu udalak

Usoarraindik San Pedrorako bideko eta Ulaiar Txikiko pistako bazterrak garbituko ditu udalak aurki.

Bide bakoitzaren bi aldeetan metro eta erdira dauden sasiak eta bestelakoak garbituko ditu. Udalak prozedura negoziatua abiatu du eta haren bidez lanak egingen dituen enpresa kontratatuko da. Lanak ematerakoan udalak eskaintza ekonomikoa eta Ulaiar-Handiko pista bide bazterrean egin daitezkeen garbiketak %50ean kontuan hartuko ditu.

Udalak aurrekontuetan aldaketa egin eta lan horietara 7.987,44 € gehiago bideratu ondoren, guztira 12.900 €ko aurrekontua dute. Haie-tatik 1.065,14 proiektua idatzi eta zuzentzeko dira eta gainontzeko 11.834,86 €ak lanak egiteko dira. Lanek azaroaren 30erako despidetuta egon beharko dute. Bestalde, Altsasuko Udalak Balankalekuko, Asentuko eta Ulaiar goitzeko pistak konpontzen ari da. Lan horiek 2014-2023 Altsasu Baso Planean jasota daude eta udalak 70.526,78 euro bideratu ditu. Horietaz aparte, Ota-dia eta Mendizabalazpiko pistak konpondu dira. Valeriano Santesteban, S.L. Enpresak 20.345,15 euro eskuratu ditu.

SAKANA



Tintarik gabe ere baliagarriak

Dravet fundazioaren alde egiteko erabilitako boligrafoak eta errotuladoreak biltzen hasi dira

Haurtzaroko epilepsia miokloniko larria edo epilepsia polimorfa. Edo, bestela, Dravet sindromea. Haurrak kolpatzen ditu. 20.000 jaiotzetatik bati eragiten dio. Dravet fundazioa gaixoen alde ari da. Erakunde horri laguntzeko erabilitako boligrafoak eta errotuladoreak jasotzeko kanpaina martxan jarri du Zior-diko running taldeak. Maiatzeko lasterketa bitartean jasoko dituzte. Ibarrean barna 17 kutxa banatu dituzte. Bakarren batek interesa badu 620 064 534 (Jose Ramon) telefonora hots egin dezake.

+www.guaixe.us

Tokiak

Irurtzunen, Futsal Sakanan. Etxarri, Argiro optikan. Altsasun, Txioa eta Iñigo Aritz ikastolak, Zelandi eskola publikoa, Sagrado Corazon ikastetxea, Arkatz liburu-denda, Cristina akademia, Ramos, Argitu eta Eroski dendetan, Itsasi euskaltegia, hizkuntza eskola, musika eskola, lortia ingeles akademia, udaletxea. Eta Zior-dian, liburutegian.

SAKANA

Urbasa-Andian hainbat lan

Landa Garapeneko, Ingurumene-ko eta Toki Administrazioioko Departamentuak 262.049 euro bide-ratu ditu Urbasa eta Andia natur parkerako. Diru hori inbertsioe-tara eta zabor-bilketara bideratu du. Joan den urtekoaren antzeko kopurua da. Departamentuak 95.000 euro gehiago jarriko ditu

Ameskoako Limitazioak mendia-ren antolamenduaren 5. berrikus-penerako. Ohidenez, egin beharreko lanen zerrenda osatzeko orduan depar-tamentuak indarrean dauden plan-gintzarako txostenak kontuan har-tu ditu (oihangintza, abeltzaintza, erabilera publikoa). Horiekin bate-

ra, hainbateragilek egindako ekar-penak kontuan izan ditu, besteak beste: Larreen Juntak, Bakedano-ko Kontzejuak, Ameskoako Limi-tazioak mendiko juntak eta parke-ko bisitarien, parkeko egituren erabiltzaileen eta diru-irabazi asmorik gabeko hainbat elkartek egindako eskarien azterketak.



2015ean egindakoak	
Egitekoa	Aurrekontua
Zaborrateko Baltsaren iragazgaiztasuna eta biltzeko gaitasuna handitzea	57.543,59
Parkeko hondakinen bilketa, garraioa eta tratamendua	23.995,40
Egituren mantenua (barne itxiturak, iturri-askak konpontzea eta hobetzea, edo bazkalekua hobetzeko itxiturak	17.676,23
2015eko planeko Urbasako egur sailak markatzea	7.200
Ingiria lekuko pista hobetzea	5.456
Joritasunari begirako landatze-lanak Ingirian	4.420
Gaitzen tratamenduko produktuen hondakinak jasotzea eta kudeatzea	2.904
Santa Quiteria baltsan antzemandako kalteak konpontzea	3.575
Gaitzen tratamendurako laguntzaileak kontratatzea	1.925
Lur-laginak Iturgoiengo Trinitatean baltsa proiektatzeko	605
Natur parkearen hobekuntza eta mantenurako hainbat lanen erredakzioa, koordinazioa eta zuzendaritza, batzuen gauzatzea	20.976,86
Natur parkearen mantenua eta erabilera publikoaren enkargua	108.043,01
Ameskoako Limitazioak mendiaren kudeaketako oihangintza lan zenbait. Basogintzarako diru-laguntzak	99.376,15
Urbasa mendiaren antolamendu proiektuaren berrikuspena	21.762,81
Urederraren Iturburuko zaldainaren konpontze eta sendotze-lanak	---
Parkeko interpretazio ibilbideen mantenua	---
Oihan-ustiapena	Enkante bidez
Erbi europarra eta zenbait ehiza-espezietako ugaltzaileen jarraipena.	Dep. baliabideak
Ur puntuen inbentario georreferentziatua	Dep. baliabideak
Ugatzen hileroko jarraipena	Dep. baliabideak
Sai zuri, miru gorri eta bertako karramarroaren kopuruen jarraipena	Dep. baliabideak

Aurten egindakoak	
Egitekoa	Aurrekontua
Trinitatea lekuan baltsa berria egitea eta bi aska paratzea	52.395,65
Ur puntuen konponketa lanak	3.696,21
Barrutietako hesien berrikuspena	1.757,95
Amildegietako hesien mantenua eta hobekuntza	14.498,40
Natur parkearen mantenua eta erabilera publikoaren enkargua	108.048,99
Hazteria gaitzaren aurkako tratamendua	1.556,10
Jauregiko pistaren mantenua	3.069
Lizarragako harresiaren mantenua	1.556,10
Urbasa mendia antolamenduaren 5. berrikuspena	Dep. baliabideak
Limitazioak mendiaren antolamenduaren 5. berrikuspenarena	Kontratazio negoziatua
2017ko etxerako egur-epaitzak egiteko bakantze-lanak oihanean	Autofinantziagarria
Zaborrateko pistaren mantenua	8.258
Zur-markaketa oihan-ustiapenerako	6.543
Oihan-ustiapena.	Enkante bidezko esleipena
Basozainen etxeko itajurak konpontzea	3.250
Parkeko seinalizazioaren mantenua	3.373,47
Urederraren iturburuko bidearen ohiko mantenua	1.539,80
Urederraren iturburuko bidearen ez-ohiko mantenua	9.620,87
Hondakinen bilketa, garraioa eta tratamendua	21.814
Natur Interpretazio Gunearen itajurak konpontzea	1.000
Babestutako fauna espezieak babesteko itxiturak	3.157
Bazkalekuen mikro-erreserbak	2.480
Parkeko leize-zuloen sistemaren kontserbazio egoeraren inbentarioa	6.000
Ugatzen hileroko jarraipena	Dep. baliabideak
Sai zuria, miru gorria eta bertako karramarroen kopuruen jarraipena	Dep. baliabideak
Erbi europarra eta hainbat ehiza espezieetako ugaltzaileen jarraipena	Dep. baliabideak
Informazio orriak biltzea eta berriz argitaratzea	Balorazioa egingai
Patronatuaren beste hainbat proposamen	10.000

Europarc

Urbasa eta Andia Natur Parkea Europako

Parkeen Sareko partaidea da. Sareak natur gune horien kudeaketa-estrategiak koor-dinatzea du helburu.

21.408 hektarea lau zatitan banatua



Urbasa Mendia ondare-mendia: 11.399 ha. Andia Mendia ondare-mendia: 4.700 ha. Ames-koako Limitazioak mendia: 5.1990 ha. Urederraren Iturburua Natur Erreserba: 119 ha.

Baso aprobetsamenduak



Urtea	Zuhaitz mota	Metro kubikoak
2015	Pagoa	14.543
	Koniferak*	8.911
2016	Pagoa	14.081
* Pinu gorria, larizio, beltza, Douglas izeia eta laritza.		

Ur puntuak



Natur parkean 50 baltsa eta 56 aska daude. Baltsa gehienak naturalak dira eta, berez, ekosistema aberatsak dira.

Ogiaren artisauek

PORTUKO okindegia

goza dezazuela Altsuko ferietan

ETXARRI ARANATZ: 948 460 988
ALTSASU: Denda: 948 563 822 · Lantegia: 948 467 153

Konfiantzazko aseguradora orokorra!

MAPFRE

La aseguradora global de confianza

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM

948 563 354
jimazpr@mapfre.com
San Juan 48 · ALTSASU

BIL TOKI

TABERNA • JATETKEA

ferietan ere...

948 467 876 · Altsasu



GRUPO TANATORIO

IRACHE

TANATORIO TALDEA

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

948 197 070

www.tanatoriosirache.com

Juan Mari Ganboa Azpiroz

(Lakuntzako alkate ohia)

Sortu zinen enbor beretik sortuko dira besteak



Lakuntzako Udala







Hainbat aukera

Galdetu

948 564 275



Oroigarriak egiten ditugu

Nahi duzun argazki eta testuarekin

Foru plaza, 23-1 Altsasu · 948 564 275 · gk@gkomunikazioa.eus



guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

2 TEKNOLOGIA

3 LANA/NEGOZIOAK

4 DENETARIK

5 IBILGAILUAK

6 HARREMANAK

7 AISIA/KIROLA

8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**

Astekarian: Saldu/erosi, errentan eman/hartu, lan eskaintzak 11€+ BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75

Posta elektronikoa: iragarki@guaixe.eus

HIGIEZINAK

ETXEBIZITZAK

SALDU

Altsasun etxebizitza itsasia salgai.
300 m². Jantzita. Tel 670 276 457
Aintzane eta 600 495 243 Pello.

LANA | NEGOTZIOAK

LAN ESKAINTZAK

Irakasle bat Irurtzunen. Gaitekin erabiltzen den atabala jotzeko irakasle bat bilatzen ari gara klaseak emateko. Tel 636 753 976 Ana.

IKASTAROA

Produktuen merkaturatzea. Lehen sektoreko produktuen merkaturatze egokirako gakoak ikasteko. Lastailaren 17an eta 19an, astelehenean eta asteazkenean, 16:00etatik 19:00etara, dohai-rik, Arbuzuko industrialdean dagoen Utzaganen. Sakanako Garapen Agentzia.

Desfibriladore ikastaroa Uharte Arakilen (urriak 20-21) eta desfibriladore ikastaroaren birziklapen ikastaroa (urriak 27). Lakuntzan. Sakanako Mankomunitateak, CEIM eta Uharte Arakilgo udalaren laguntzarekin, desfibriladoreak erabiltzen ikasteko ikastaroa antolatzen du urriaren 20an eta 21ean, 16:30etik 20:30era, Uharte Arakilgo udaletxean. Sorosleei, udal langileei, irakasleei eta sorospenetan interresa daukan edozeini zuzendua dago. Ikastaroan bihotz-birikietako erreanimazioak, itotzeak eta bizia arriskuan jartzen duten egoeren aurrean zer egin eta desfibriladorearen erabilera aztertuko dira, besteak beste. Bestalde, arautegiak bi urteroko desfibriladore titulua mantent-

tzeko errezikatze ikastaro bat egitea eskatzen du. Horrela, Nafarroako Gobernuak osasun departamenduak emandako titulua daukaten guztiei, Nafarroako Kirol Institutuak 4 orduko ikastaroa eskainiko die Lakuntzan, Mank-en egoitzan, urriaren 27an, arratsaldeko 16:30etik 20:30era. Bi ikastaroetan urriaren 11 baino lehen eman beharko da izena, Mank-eko Kirol Zerbitzuan (948 464 866 edo irak@sakana-mank.eus). Bi ikastaroetan gehienez 24 parte-hartzaile errendako tokia dago, eta beharrezkoa balitz, itxaron zerrenda egingen litzateke.

TXAPELKETA

Barandi tabernaren bigarren partxis txapelketa. Urriaren 31n hasiko da, astelehen eta asteazkenean. Bikote bakoitzak 10 € ordainduko ditu. Partidak 21:30ean hasiko dira. Izen-ematea urriaren 27ra arte. Tel 948 46 91

93.Nafarroako Euskal Kantu Txapelketa.

16 urte gorakoek eman dezakete izena; banaka, binaka eta taldeka parte hartu daitezke, a capella kantatuz, musika tresnen laguntzaz eta audio baten laguntzaz. Izen-ematea hilaren 26an desbideratuko da: nafarroakoeuskalkantu@gmail.com e-posta edo Facebook-eko Nafarroako Euskal Kantu profila.

OPATUTAKOAK / GALDUTAKOAK

OPATUTAKOAK

Altsasuko Udaltzaingoko Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta miki-

lak: 19. Belatitakoak, kateak, eskumuturrak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

OHARRAK

Gazteei jarritako isunak ordaintzeko. Euskal preso eta iheslarien aldeko abenduaren 30eko ekimenean parte hartu zuten gazte saskandarrek 6.000 euroko isuna jaso dute. Mozal legearen aplikazio horri elkartasunetik erantzun kolektiboa emateko dinamika martxan jarri dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korrerontea zabaldu dute. ES67 3008 0014 2133 8075 1119

Helduen Nafarroako Euskal Kantu Jaialdia.

Udazkenean izanen da. Izena eman nahi duenak nafarroakoeuskalkantu@gmail.com edo amadominguez@tafallaikaastola.org e-postara diatzi dezake, helduen jaialdirako dela adieraziz.

Euskaldun bat euro bat.

Nafarroako erresumakoa izan zen Baigorriko Etxauzia gaztelua euskaldunentzat erreskuratu nahi da. Nafartarren eta euskaldun guztien etxea izan dadin. Gure kultura, ekonomia, historia eta mugaz gaindiko harremanak antzinarazteko gunea bizia. Informazioa www.euskaldunbateurobat.com

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde.

Diru ekarpenak kontu korrerontean egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2100 2173 87 0200346965

Volkswageneko langileendako deia.

Iruñeko lantegiak zure elkartasun proiektua deialdia bigarren urtez aurkeztu du. Bocalan Biak Bat fundazioak “Lau zango milaka irri” programa aurkeztu du laguntza deialdi horretarako. Proiektua aurkeztu duten Sakanako elkarte bako-rra dira. Fundaziotik Volkswagen-eko langileei 24 proiektuaren aldeko botoa ematera animatu dituzte.

Nicoleren aldeko diru-bilketa.

Garun paralisia duen neska olaztiarra atzerrian operatzeko diru-bilketan ekarpena egin nahi duenak kontu korrerontean honetan sartu dezake dirua: ES33 2100 5365 2301 0002 9770.

GoiEner Iruñean.

Landarek utzitako lekuan, Joaquín Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazkenean, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

Autoenplegurako laguntza.

Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jardura sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Mintzakide proiektua.

Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina.

Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza, eusko-

news@euskonews.com, 943 32 22 94

Auzolana Josefina Arregui klinikan.

Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela

Josefina Arregui klinikako bazkidea izan

nahi baduzu, urtean 12 € edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com

Errefuxiatuendako material bilketa.

Adin guztiendako arropak, haurrendako eskola materiala eta jakiak biltzen ditu AHNAK. Altsasun, Frontoi zeharbidearen 14an udalak duen baxerian, astelehen eta ostiralean, 11:00etatik 14:00etara, eta Etxarri Aranatzeko, udaletxeko estalopeko eskubiko atearen, astearte eta ostiralean 17:00etatik 19:00etara.

Iragarkilaburrak

PREZIOAK egokitu ditugu!!

3€

3 astez jarritz eskaintza berezia:

8€

(BEZ barne)

Sail berria TRUKEAK

Enplegarritasuna hobetzeko biterkaritza eta aholkularitza zerbitzua.

Sakanako Enpresari Elkarteak langabeei eta lan bila dabilzanendako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

JAIOTZAK

- Noa Manjón Lopez de Goikoetxea, Lastailaren 1ean Altsasun.
- Manex Izagirre Ormazabal, Lastailaren 3an Ziurdian.
- Iker Vazquez Muñoz Lastailaren 6an Altsasun.

EZKONTZAK

- Joseba Imaz Berastegi eta Sira Goñi Lazkano, lastailaren 10ean Unanun.

HERIOTZAK

- Maria Flores Lakuntza, lastailaren 4an Altsasun.
- Marcelino Urrutia Otegi, lastailaren 5ean Altsasun
- Juan Mari Ganboa Azpiroz, lastailaren 11an Lakuntzan.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

Txirrindularitza



Erbiti asteazkeneko erlojupekoan.

Mundialak: Aramendia gaur lehiatuko da eta Erbiti igandean

Dagoeneko erlojupekoan aritu da Hiriberrikoa

Qatarreko hiriburuan, Dohan, jokatzen ari dira Munduko Txirrindularitza Txapelketak. Aipatu Mundialetan lehiatzen ari dira bi sakandar: Imanol Erbiti Hiriberriko txirrindularia, profesional mailan, eta Maialen Aramendia iturmendiarrak, junior mailan.

Maialen Aramendia gaur lehiatuko da, emakumezkoen junior mailako lineako lasterketan, 8:30ean -hemen ordu bat beranduago-. Beroa izango du etsai nagusietako bat. Miriam Gardachal, Sandra Alonso eta Sara Martin dira bere taldekideak. Bestalde, Imanol Erbiti aurreko igandean taldekako erlojupekoan lehiatu zen, Movistar taldearekin. Seigarrenak sailkatu ziren. Asteazkenean banakako erlojupekoa izan zuen arakildarrak. Tony Martin izan zen irabazlea (44:42), Erbitiren taldekide Jonathan Castroviejo hirugarrena, 1:10era, eta Erbiti 37.a, 3:45era. Igandean lineako proba dauka arakildarrak.

Pilota

Kaiola Altsasun: Ezkurdiak Retegi Biren kontra hobeto aritu nahi du

Altsasuko ferietako pilota jaialdia

Gaur, ostiralean, 22:00etan, Burunda pilotalekuan:

Binaka: Mendizabal III.a-Zaballeta / Elezkano II.a-Rezusta

Lau t'erdian: Retegi Bi / Ezkurdia

Arretxe II.aren kontra ez zela eroso aritu onartu du arbizuarrak

Gaur Lau t'erdiko Pilota Txapelketako final laurdenen ligaxka abiatuko da. Final zortzirenetan Arretxe II.ari 16 eta 22 irabazi eta gero, Joseba Ezkurdiak Gorka bidean uztetik datorren Retegi Bi izango du aurkari. Partida gaur jokatuko da, ostiralean, Altsasuko ferietarako Aspek antolatutako jaialdiaren barruan (ETB1, ntb). Partida lehiatua espero da eta Ezkurdiak Arretxeren kontra baino hobe jokatu beharko du ligaxkako lehen puntua lortzeko.

Arretxe II.ari irabazi, baina ederki sufrituta

Lau t'erdiko final zortzirenetan Joseba Ezkurdiak eta Arretxe II.ak

Lau t'erdiko final laurdenen ligaxka

Ostiralean, 22:00etan, Altsasun: Ezkurdia / Retegi Bi (ETB1, ntb)

Larunbatean, 18:00etan, Etxebarri: Irribarria / Victor

Larunbatean, 17:45ean, Iruñean: Olaizola / Bengoetxea VI.a

Igandean, 17:40etan, Eibarren: Urrutikoetxea / Altuna III.a (ETB1, ntb)

igandean Lekunberrin jokatutako partidak denetarik izan zuen, polemikako tartea baita ere.

Partida hasi eta 2 eta 0 aurreratua zegoela, ezkereskuarekin pilotakada ematerakoan lepoan kalare bat nabaritu zuen Arretxe II.ak. Oinazeak zituela, aldageletara joan zen Luzaidekoa, eta kantxara itzuli ote zen zalantza piztu zen. Baina kantxara itzuli zen. Hasieran bi pilotariak paretsu ibili ziren. Ez zuten erritmo egokia hartzen eta tantoak bataren eta bestearen aldeira erori ziren. Ezkurdia zen faboritoa, baina arbizuarrak ez zegoen batere eroso. Arretxe 12 eta 11 aurreratua zegoenean iritsi zen polemika. Ezkurdiaren erretoak txapa ukitu otezuen, horizen zalantza. Arretxek ez zuen jokaldiarekin jarraitu, bere ustetan Ezkurdiaren erretoak txapa ukitu zuelako, baina arbitroak, aldiz, ontzat jo zuen Ezkurdiaren erretoa. Arretxe II.ak protesta egin zuen, baina arbitroak ez zuen erabakia aldatu.

Hortik aurrera jokoa aldatu zen. Arretxe despistatu egin zen, eta, aldiz, Ezkurdiak 4 tanto egin zituen segidan eta, 18 eta 13 aurreratu zen. Azkenean, arerio konplikatu den Arretxe II.ari 16 eta 22 irabazi zion arbizuarrak, lau t'erdiko final laurdenetarako sailkatuz. "Sufritzen jakin dut eta partida aurrera ateratzen" azaldu zuen arbizuarrak bukeran. Arretxek, berriz, pilotak txapa jo zuela zioen behin eta berriz.

Retegi eta Irujo, botillero

Gaur Gorka bidean uztetik datorren Retegi Bi izango du aurkari Joseba Ezkurdiak.

"Uste dut final laurdenetako ligax-

Ezkurdia: "Gogoeikin nago"



Pilota aukeraketa asteartean egin zuten Retegi Bi eta Ezkurdiak. "Bakoitzak gure pilota aukeratu dugu. Bereak pixkat lasaigoak dira eta nireak ezberdinak. Bata biziagoa da eta bestea zakarragoa, baina igual errazago mugitzen dena. Azpitik txispa gehiago duten pilotak. Baina ikusiko dugu zer gertatzen den, aurreko astean banangoelako Lekunberrin pilotak ongi aukeratu nituela eta gero pixkat sosoak iruditu zitzaizkidan" adierazi zuen Joseba Ezkurdiak. Arretxe II.aren kontrako partidatik hoberena "emaitza" izan zela aitortu zuen arbizuarrak. "Deseroso aritu nintzen, tentsioarekin. Azkenean gustura geratu nintzen, sufritzen jakin nuelako. Baina ez nintzen libre ikusten eta ea ostiralean (gaur) hobeto aritzen nintzen" aitortu zigun arbizuarrak. Retegi Biren kontra hobeto jokatu beharko duela argi du Ezkurdiak, hobetzeko gauza asko dituela, defentsan hobetzea, bereziki. "Retegi Biren kontrako partida zaila da. Nire jokoa egiten saiatuko naiz, abiadura jartzen. Ea sakearekin mina egiten dudana eta tantoa bukatzen aztaten dudana. Badakit zaila izango dela, Retegi Bi pilotari ona delako. Bi eskuekin oso ongi manejatzen du pilota. Gauzak oso ongi egin beharko ditut baina gogoeikin nago ea ea zer ateratzen den ostiralean" gaineratu zuen.

kan partida gakoa izango dela hau. Galtzen duenak hanka bat baino gehiago izango du kanpoan eta irabazten duenak gerra ematen jarraituko du" adierazi du Juan Martinez de Irujo, Ezkurdiaren botilleroak. Altsasuko partidak ikusmin handia sortu du, ez bakarrik Ezkurdia eta Retegi Biren arteko lehiak nola bukatuko duen ikusteko, baizik eta botillero lanean Irujo eta Julian Retegi nola moldatzen diren ikusiko baitutelako pilota zaleek, oilarren beste borroka batean.

"Irujok aurretik ere egin dit

botillero. Mundu honetan urte asko daramatza eta aholku oso onak ematen ditu. Oso gustura nago berarekin eta ea bera ere gustura dagoen" zioen arbizuarrak pilota aukeraketan. Iberokoak osasunez ongi sentitzen dela adierazi zuen, medikuei kasu egiten ari dela eta botillero lanetan gustura dabilela onartu zuen.

Partidako sarrerak

Aurretik erreserbatzeko 661 251 009 telefonora deitu. Bestela, gaur, partidaren egunean, txarteldagian, 21:00etatik aurrera.

Automobilismoa

Aldekoa eta Goikoetxea seigarrenak Extremaduran

Lur Gaineiko Extremadura Iparraldeko Rallyan aritu dira nafarrak

Urriaren 7an eta 8an jokatu da Lur Gaineiko Extremadura Iparraldeko Rallya, Espainiako Lur Gaineiko Rallyen Txapelketarako baliagarria. Lasterketa oso gogorra izan da, baina egindakoarekin kontentatu geratu dira Carlos Aldekoa pilotua eta Javier Goikoetxea kopilotu olaztiarra (Ford Fiesta R5+).

53 autok osatu zuten proba eta A. Vilanueva eta O. Sanchezek irabazi zuten (1:10:27). Carlos Aldekoa eta Javier Goikoetxea seigarrenak sailkatu ziren 1:14:07. "Rally benetan gogorra izan zen,

batez ere goizeko lau tartearak. Bero asko egiten zuen eta frenoekin arazoak izan genituen. Arratsaldean hobeto aritu ginen, gozatzin, baina Aguadorekin borrokan ibili ondoren bosgarren postua galdu genuen eta seigarrenak izan ginen. Orain Espainiako Txapelketan laugarrenak gaudete, eta bi proba geratzen zaizkigu txapelketa bukatzeko, Malagakoa eta Pozoblanckoa" azaldu digu Javier Goikoetxeak.

XI. Malagako Kriteriuma urriaren 21ean eta 22an jokatuko da. Ea zortea alde duten Aldekoak eta Goikoetxeak.

AISIALDIKO BEGIRALEEN LAN-POLITSA

Gutxieneko baldintzak:

- ✓ Euskaraz jakitea, ahoz nahiz idatziz. C1 egiaztatu beharko da.

- ✓ Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua edo horren baliokidea.

Kontuan izango da:

- Gidatzeko baimena eta autoa izatea.
- Aisialdiko begirale titulua.



Mank
s a k a n a

Harremanetan jartzeko modua: interesa dutenek beren curriculumak honako helbide honetara bidali beharko dute: euskara1@sakana-mank.eus

Mendia

Bihar Zabalarte eguna

Lakuntzako mendi taldearen egunean Jabi Arkauz mendizalea izango dute gogoan

Lakuntzako Zabalarte mendi taldeak bihar ospatuko du bere eguna. Aurten Jabi Arkauzen heriotzaren 15. urteurrenarekin egiten du bat egunak. Jakina denez, Lakuntzako mendizale gaztea Pumori zazpimilakoa igotzen ari zela hil egin zen. Horrela, aurtengo Zabalarte Egunean Jabi Arkauz gogoan izango du Lakuntzako mendi klubak. Bihar, larunbatean, goizeko 8:00etan Lakuntzako plazatik autobusa abiatuko da, izena ematen duten mendizaleak Errazkinera eramateko. Eta, ondoren, Errazkin-Lakuntza mendi ibilbidea burutzea da asmoa. Behin herrira helduta, Lakuntzako Pertza elkartean bazkaltzera bilduko dira mendizaleak. Egun polita pasatzera animatu du Zabalartek.

Sega

Bixente Mitxelena txapeldun

Nazioarteko erako Euskal Herriko Sega Txapelketa irabazi du

Guztira 19 segalari lehiatu ziren, igandean, nazioarteko erako Euskal Herriko Sega Txapelketako finalean, Zaldibian. Gizonezkoetan Altsasun bizi den Bixente Mitxelena oiar-tzuarra izan zen onena. Igor Esnaolak Mitxelena estutu zuen, baina azkenean Mitxelenak jantzi zuen txapela. Emakumezkoetan Maria Luisa Gabirondo gailendu zen.

Mendi Lasterketak

Katarain eta Munarriz aurrean Anboto Km Bertikalean

Aitor Osak (39:12) irabazitako proban lakuntzarra 9.a izan zen (44:13) eta Munarriz 11.a (44:55)

Sakandarrak 9. Anboto Km Bertikalean	
1.	Aitor Osa: 39:12
9.	Beñat Katarain: 44:13
11.	Aritz Munarriz: 44:55
45.	Alatz Agirre: 49:23
60.	Fidel Jimenez: 51:22
101.	Asier Reparaz: 54:55

Larunbatean 204 korrikalarik osatu zuten Atxondon jokaturako 9. Anboto Km Bertikala, Anboto mendi ikusgarriira itzotzeko 3,8 km-ko proba labur bezain gogorra. Aitor Osak proba bertikaletan primeran moldatzen dela erakutsi zuen berriz, Debakoa txapelduna izan baitzen (39:12), Iñigo Lariz bigarrenari minutu pasa atera eta gero (40:27). Beñat Katarain lakuntzarrak maila onean jarritzen duela erakutsi zuen, top-tenean sailkatu baitzen. 9.a izan zen Katarain (44:13). Aritz Munarriz etxarriarra ere aurrean sailkatu zen, 11. denbora onena egin baitzuen. Emakumezkoetan Maria Zorroza gailendu zen (47:48).

Enduro

Enduroko Sei Egunak: Beraza eta Mugika

Los Arcoseko Nafarroako Zirkuituan burutzen ari da proba eta munduko 600 pilotu baino gehiago lehiatzen ari dira. 1.000 km-ko ibilbidea egin beharko dute, sei egunetan

Asteartean hasi ziren 2016ko Enduroko Sei Egunak (ISDE, International Six Days Enduro), Enduroko Olinpiadak izenarekin ezagunak diren proba ezagun bezain gogorrak. Aurten Los Arcoseko Nafarroako Zirkuituan eta inguruetan jokatzeko ari da proba garrantzitsua eta guztira 600 pilotu baino gehiago lehiatzen ari dira, munduko 33 herrialde ordezkaturako dituztenak. Pilotuak hiruko edo lau ko taldetan lehiatzen ari dira eta guztira 1.000 km-ko ibilbidea egin beharko dute, sei egunetan.

Azken edizioan Australia izan zen txapelduna. Aurten Espainia ordezkaturako duten pilotuen artean Jonathan Barragan, Jaume Betriu, Victor Guerrero eta Ivan Cervantes izango dira maila nagusiko ordezkariak eta, emakumezkoetan, Laia Sanz, Sandra Gomez



Ezkerrean Marcos Beraza eta eskuinean Unai Mugika.

eta Mireia Badia izango dira maila goreneko pilotuak.

Marcosen erorikoa

9 nafar daude lehian, bi sakandar tartean: Marcos Beraza irintarra eta Unai Mugika altsasuarra. Marcos Berazak Sergi Casain katalandarrarekin eta Jaime Perez andaluziarrarekin osatu du taldea. Bigarren jardunaldia konplika-



tua izan zen irintarrarendako, erorikoa izan baitzuen. Buruan eta bizkarrean hartu zuen mina. Baina altxatzea eta motorra martxan jartzea lortu zuen, eta etapa despeditzea. Bestalde, Unai Mugikak Larragako Iker Artxango eta andaluziar bat ditu taldekide. Orain arte jokaturako etapen aurre egin die eta igandera arte lehian jarraitzeko asmoa dute biek.

Mendia



Euskal Herriko erdigunean bat egin zutenek talde argazkia ateratzen duen monolito aurrean. INDEPENDENTISTAK

EH erdigunean euskal mendizaleen egitura bateratua aldarrikatu zuten

Mendizaleen kolektibo osoarendako proiektu komun bat gauzatzeko bide-orria zehazteko konpromisoa hartu zuten

Irato mendi taldeak, Sakanako Mendizaleak taldeak eta Independentistak sareak antolatuta, Euskal Herriko Erdigunera martxa burutu zen igandean. Eguraldia lagun, lurraldetasuna aldarrikatzeko ekin zioten ibilbideari hiru zutabek. Bata Unanetik abiatu zen, Senosiaingo goialdeko askatik bestea eta Irañetako bordatik azkena. Talde ederra bildu zen erdigunean.

Bi federazioetatik bakarra sortzea

Ekitaldian, Euskal Mendi Federazioak eta Nafarroako Mendi Kiroletako eta Eskaladako Federazioak “mendizaleen kolektibo osoarendako proiektu komun bat gauzatzeko bide-orria zehazteko konpromisoa” hartu zuten. Nafarroako Mendi Federazioko Martin Montañes lehendakariak eta Koldo Aldaz lehendakari ordeak irakurritako adierazpenean, “euskal mendizaleen egitura komun bate-

rako konbergentzia” aldarrikatu zuten, “duela 27 urte Besaiden sinatutako Lankidetzak Hitzarmena oinarritzat hartuz”.

Gogoratu zuten 1924an jaio zela, Elgetan, Federacion Vasco Navarra del Alpinismo taldea, eta 1989an Eusko Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako gobernuen babespean hegoaldeko lau lurraldeetako federazioek Besaiden sinatutako hitzar-

mena oroitu zuten. Montañesek eta Aldazek nabarmendu zutenenez, bi federazioek sinatu dute adierazpena. “Asteazkenean bildu ginen Euskal Mendi Federazioko presidente Joseba Ugalderekin Tolosan eta gaur irakurri dugun manifestu hau adostu genuen” azaldu zuen Aldazek.

Ondoren Irañetako bordan herri bazkarian bildu ziren guztiak.

Erdigunea erasotua



Beriaingo San Donato ermitatik hurbil, Olibesarioan dago kokatuta Euskal Herriko erdigune geografikoa, 1.236 metroko altueran, (Koordenadak: X:586.936 eta Y:4.748). Felix Isasi ingeniariak barizentroaren kontzeptu oinarrituta kalkulatu zuen erdigunea. Monolito bat jaso zuten bertan. Baina egunotan hainbat ezezagunek bertan jasotako monolitoa erasotu dute, espainiar banderako koloreekin margotuz. Gertatutakoa salatu dute.

Futbola

FEDERATUTAKO TXAPELKETA

PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

4. JARDUNALDIA

BERIAIN 0 - LAGUN ARTEA 2 BIDEZARRA 1 - ETXARRI ARANATZ 1
Beriaini 0 eta 2 irabazi eta gero, Lakuntzako Lagun Artea dugu preferente mailako lider berria. Partida nahiko kaxkarrean, lakuntzarrek punteria hobea izan zuten. Josebak aurreratu zuen Lagun atsedenaldia baino lehen. Beriairi partidari buelta ematen saiatu zen baina Danielek Lagunen bigarren sartu zuen. Noainen bana berdindu zuten Bidezarrak eta Etxarrik, oso partida lehiatuan. Bidezarrak hartu zuen kontrola eta gola sartu zuen. Bigarren zatian gora egin zuen Etxarrik, ongi jokatu zuen eta Xabatek berdintzea lortu zuen, penaltiz. Bestalde, Etxarri IMQ Kopatik kanpo geratu da, asteazkenean jokaturako final hamaseirenetan San Jorgeren kontra 2 eta 1 galdu eta gero.

Sailkapena >>

1.	Lagun Artea		10 p
9.	Etxarri Aranatz		5 p

Asteburuko jardunaldia

LAGUN ARTEA - BIDEZARRA (Larunbatean, 16:45ean, Lakuntzan)
SAN ANDRES - ETXARRI ARANATZ (Larunbatean, 18:15ean, Lizarran)

ERREGIONAL MAILA. 1. multzoa

3. JARDUNALDIA

ALTSASU 3 - ARDOI 3
Ardoi indartsu hasi zen eta 3. minuturako Zizurkoak aurreratu ziren. Altsasuk partidaren kontrola hartu zuen eta Josebak berdintzea lortu zuen. Bigarren zatian Zizurrek beste gol bat sartu zuen, Raulek bina berdindu zuen, hirugarrena sartu zuten Zizurkoek eta, penaltiz, berdindu zuen Altsasuk.

Sailkapena >>

1.	San Jorge		7 p
8.	Altsasu		2 p

Asteburuko jardunaldia

LAGUNAK - ALTSASU (Igandean, 18:00etan, Barañainen)

ELOMENDIKO TXAPELKETA

4. JARDUNALDIA

APOLO 3 - ZALDUA 3

Sailkapena >>

1.	Ardoi-Poukas		12 p
5.	Zaldua		7 p

Asteburuko jardunaldia

BASATI- ZALDUA (Ukarren)

Areto futbola

Cartagenarekin berdinduz ekin dio ligari Magna Gurpeak

Gaur, ostiralean, Jumilla hartuko du talde berdeak, 20:30ean, Anaitasuna pabilioian

Asteazkenean hasi zen areto futboleko lehen mailako 2016-2017 denboraldia. Cartagena oso indartsu hasi zen, Magna Gurpea ederkiki presionatuz. Horrela, markagailuan aurreratzea lortu zuen Cartagenak, baina gutxinaka Imanol Arregiren mutilek jokoaren kontrola berreskuratu zuten eta atsedenaldia baino lehen berdintzea lortu zuen Javi Esevenri beterano nafarrak. Bigarren zatian bi taldeek gol aukera politik izan zituzten, baina ez zuten asmatu. “Ez dugu partida ona egin. Paseetan akats gehiegi egin ditugu eta estrategian ezer gutxi. Gure akats baten ondoren sartu digute gola. Azkenean irabazteko aukerak izan ditugu, baina ez gara oso ongi egon” adierazi du Imanol Arregik. Gaur, ostiralean, 20:30ean Magna Gurpea Xotak Jumilla taldea hartuko du Anaitasuna pabilioian, 20:30ean, etxeko lehen partidari.

Atletismoa

Onddoen artean... goazen korrika!

9. Onddo Lasterketa bihar jokatu da, Altsasuko ferietan. 11:00etan txikien probak izango dira, 11:30ean oinezkoak abiatuko dira eta 12:00etan onddo lasterketako korrikalariak

Atletismoaz gozatzeko, goiza ederrapasatzeko eta udazkenean zoragarri dagoen basotik barna, onddo artean, korrikan buelta ederra emateko. Helburu horiekin antolatuzuen, Dantzaleku Sakana atletismo klubak, Onddo lasterketa. Proba ez lehiakorra da, ez da denborarik hartzen ez sailkapenik egiten, eta urtetik urtera gora egin du: geroz eta herrikoia goa da. Aurreko urtean bezala, 14 urtetik gorakoei 5 euro kobratuko die antolakuntzak, jasotako diru guztia Josegina Arregi Klinikaren Lagunak elkarteari bideratzeko.

11:00etan txikiak
Lehenik eta behin kategoria txikienak ariko dira korrikan, 37. Eskolarteko Krosean. Kategoria ezberdinetako probak Altsasuko Foru plaza eta Zubetzia plaza artean antolatuko dira. Bukaeran zukua eta gozoren bat jasoko dute neska-mutikoeak.

11:30ean oinez eta 12:00etan korrika
Eguerdiko Onddo lasterketako ibil-

Korrikalari asko espero dituzte



Aurreko urtean ia 400 korrikalari hartu zuten parte Onddo Lasterketan eta 99 korrikalari aritu ziren Eskolarteko Krosean. Biharko eguraldi ona iragarri dute eta Bergarak bertan parte hartzera animatu du. “Gure lasterketa oso herrikoia da, ez da lehiakorra eta naturaz gozatu nahi dugu, korrikan, onddoak ateratzen diren parajeen. Edo oinez, nahi den eran. Jende guztia gonbidatzen dugu emakumeak bereziki, ateratzea gehiago kostatzen zaielako. Makina bat gonbidapen bidali ditugu: Altsasuko Udaleko zinegotziei, Josefina Arregi Klinikako Lagun eta kolaboratzaileei eta baita Nafarroako Gobernuako presidentee Uxue Barkosi eta Parlamentuko presidentee Ainhoa Aznarezi ere. Egun polita izatea nahi dugu, eta Josefina Arregiren Klinikaren Lagunak taldea lagundu” azpimarratu du Dantzaleku Sakanakoak.

bidean ez dago aldaketarik. 6,6 km-ko lasterketa herrikoia da, onddoak ateratzen diren paraje zoragarrietatik barne: Otaibarren, Zamarretako zubia, San Pedro, Txanponazpi, Basoitxi, Otadia... “Ibilbidea nahiko eramangarria da. Dena den, badago Josefina Arregi Klinikako

ren Lagunak taldearekin kolaboratu nahi duen jendea baina korrika egitea eurendako gehiegizkoa dena. Horregatik, 6,5 km-ko beste ibilbide bat prestatu dugu eurendako. Hortaz, ez dago aitzakiarik eta edonork parte hartu dezake Onddo lasterketan” azaldu du Dantzaleku Sakana taldeko Peio Bergarak. Lehenago, 11:30ean oinezkoak abiatuko dira. Helburua bi ibilbideak plazara antzerako orduan iristea da.

Kamisetak eta 100 produktu loteren zozketa
Proba korrikan edo oinezosatzen dutenek, 14 urtetik gorakoeak, kamiseta jasoko dute. Preferentzia izena aurretik internetez eman dutenek izango dute. Helmugan salda beroa, freskagarriak eta beste izanen dira. Guztien artean lehendabizi 3 onddo saski zozketatuko dira, eta ondoren feriekin lotutako produktuekin –Galarza txistorrak, Amillano gaztak, Katealde pateak, Conservas del Reyno kontserbak, Errotain zaldi ibilbideak, Leku Ona jatetxeko bazkariak, Tipi-Tapa oinetakoak, Xurrut taberna elkartearen sariak...– osatutako 100 lote zozketatuko dira.

Izena emateko
www.dantzalekusakana.com web orrialdean. Bestela, lasterketa egunean, larunbatean Foru Plazan.

Yoseikan budoa

125 ikasle ditu Txuixoo elkarteak

Sakanako Txuixoo Yoseikan Budo taldeak Altsasun eta Etxarri Aranatzeko emango ditu eskolak

Sakanako Txuixoo Yoseikan Budo taldean gogoz ekin diote 2016-2017 ikasturteari. Yoseikan budoa arte martziala da, baina ikuspegi zabal batetik landua. Aritz Agirrebengoa San Roman irakasle altsasuarra azaldu digunez, Etxarri Aranatzeko 50 ikasle inguru dituzte eta Altsasun 75 inguru. “Gehienak haurrak dira, 3-6 urte, 6-9 urte eta 9-12 urte artekoak. Altsasun astelehen, asteazken eta ostiraletan ematen ditugu klaseak eta Etxarriren asteartetan eta ostegunetan”. Aspaldi iritsiz en yoseikan budoa Sakanara. Oihan Barandalla etxarriarrak eskatuta, Iparraldeko Koxe Perez klaseak ematera etorri zen, duela ia 20 urte. “Yoseikan budoak osasun ona du. Ahoz aho gurasoek zabaltu dute gure kirola, umeekin egiten dugun lana oso ona delako” gaineratu du Aritzek. Klase guztiak euskaraz ematen dituzte eta helduak, haurrak... mota guztietako jendea aritzen da, 3 urtetik hasita 70 urtera arte. Lanegiteko oso kirol polita da” dio Aritzek.

Yoseikan budoaz
Yoseikan budoa Japoniatik datorren arte martziala da, 1975ean Hiroo Mochizukik ofizialki fundatua. Samurayen tradizioan txertatzen da. Yoseikan budoaren onurak asko dira. Besteak beste, gor-

Boumahammedekin klasean



Asteburu berezia izan da hau Txuixoo Yoseikan Budo taldearendako, Nadir Boumahammed yoseikan budo borrokalari frantziar prestigiotsuak ikastaro trinkoa eman baitie Altsasun. “Pedagogo oso ona da eta borrokalari eta formatzaile bikaina. Borroka eta epaimahakide edo epaile izateko ikastaroa eman digu. Euskal Herriko yoseikan budo irakasleak eta euskal selekzioako borrokalariak aritu gara klasea jasotzen, 15 lagun inguru. Zorte handia izan dugu bera bezalako aditu batek euskal selekzioaz arduratzea eta guri bi saio eskaintzea proposatu in nagatik. Opari bikaina da” esan du, eskertuta, Koxe Perezek. Abenduaren 10ean eta 11n Pariseko Nazioarteko Txapelketa prestatzeko bikain etorri zaie ikastaroa Amets taldekoei. Nadir Boumahammed 8 aldiz izan da Frantziako txapelduna, 3 aldiz irabazi du Belgikako Nazioarteko Grand Opena eta Marokoko Casablancako Openen txapeldunordea izan da. Europako txapeldunordea izan da. 4 urtez Frantziako selekzioan aritu da eta Frantziako epailerik gazteena da.

putz mugimenduaren kontrola, nortasun pertsonalaren garatzea eta, garrantzitsuena, alaitasuna. “Yoseikan budoa kirola da, baina baita ere arima eta gorputza, gorputz eskola. Txikiendako lan psikomotrizitate, aikidoa, bi borrokalarien artean kooperazio sistema bat eta baita gimnastika

te asko ditu. Hurrekin gehiago lantzen dugu umeak kontziente izan daitezela euren gorputzaz, nola mugitu, oreka... Beste parte bat da martziala dena. Esperimentatzea gorputza nola erabili, zeintzuk diren gorputzaren tentsio guneak, nola mugitzen den, borroka praktikoa... Txapelketetarako pixkat gehiago lantzen dugu lurreko parte, ukabila eta hankak... kirol oso konpletua da. Borroka puroa, edozein delarik, erabili dezakezula lantzen dugu” dio Agirrebengoak.

Gorputz eskola
Hurrekin Gorputz Eskola izeneko proiektua lantzen dute. “Beraien gorputza lantzeko formatzen ditugu haurrak. Psikomotrizitateetik abiatuta, baloiak, eskularruak... erabiltzen ditugu. Gaitasun askolor ditzatela, gero nahi dutena landu ahal izateko. Izan ere, gorputz askatasuna dutenean gai izango dira nahi dutena egiteko: borroka egin, dantza egin...” diote.

Amets Yoseikan Budo taldea, Euskal Herri mailakoa
Hegoaldeko eta iparraldeko yoseikan budoko kideak batzeko sortu da Amets, arte martzialen euskal taldeen sarea. Hurrekin yoseikan kanpaldia egiten dute udan, eta euskal selekzioa ere badute. “Ametsekin yoseikan budoa euskaraz irakatsi nahi dugu; garapen pertsonala garatu nahi dugu eta auzolana eta kooperatibismoa sortu nahi ditugu gazteen eta txikien artean” nabarmendu du Koxe Perezek.

Non erabili

ARGIRO OPTIKA

ETXARRI ARANATZ

%15eko deskontua graduatuetan eta %5 eguzkitakotan.

ZELANDI KIROLDEGIA

ALTSASU

Lehenengo matrikula doan.

IZARA

ALTSASU

%5eko deskontu zuzena etexeko jantzi eta osagarrietan.

TXIKITXO

ALTSASU

60 €tik gorako erosketetant, %10eko deskontu-txartel bat hurrengo erosketan erabiltzeko.

NAMASTE YOGA

ALTSASU

Bi yoga klase doan.

TIPI TAPA OINETAKOAK

ALTSASU

60 €ko erosketagatik %10eko deskontua (eskaintza ez metagarria).

VIZU ILEAPAINDEGIA

ITURMENDI

30€ko gastuarekin, %10eko deskontua.

ALDASORO HARATEGIA

ALTSASU

30€ko erosketa batengatik etxeko produktua opari.

ALFA INMOBILIARIA

ALTSASU

Etxe edo pisu baten erosketagatik 100 €ko txeketa opari.

JULENE KORTSETEGI ETA LENTZERIA

ALTSASU

%5eko deskontua 50 €tik gorako erosketetan.

www.guaixe.eus-en zerrenda osoa ikusgai



BAZKIDETZA 50€ 948 564 275

kultura >>

MIKOLOGIA ERAKUSKETA: Altsasuko mikologia elkarteak hiru urteko etenaren ondoren jardunaldiak antolatu ditu. Zizen inguruko hiru hitzaldi izan dira astean zehar.

Jardunaldia despeditzeko, domekarako, zizen eta onddoen erakusketa prestatu dute. Labaderon, 9:00etatik 14:30era.

Antzerki zikloak oihala jasoko du

Gaur, 22:00etan, Irurtzango kultur etxean

Irurtzango antzerki zikloak hiru ikuskizun iragarri ditu aurtengorako. Dantza-antzerkia, drama eta keinu antzerkia izanen dira aukeran. Eta haietako bat euskaraz. Zikloa Ados teatroak zabalduko du gaur *El chico de las zapatillas rojas* antzezlanarekin. Dantza eta antzerkia uztartzen dituen antzezlan horrek Luisen istorioa kontatzen du. Eta haren bidez aniztasun afektibo-sexualarekiko errespetua eta tolerantzia zabaldu nahi du.

Obrako protagonistari, Luisi, mutilei egitea gustatzen zaizkien gauzak egitea ez zaio gustatzen.



Berak nahigo du loreak hartzea, margotzea, sokasaltoan egitea, sabaiko arropa zaharrekin moztarroz egitea eta rock and rollaren izar bat izanen balitz bezala abestea. Urteak pasa ahala, nerabe atsegin eta ameslari batean bihurtuko da, ondoren maitasuna aurkituko duen heldu bat izanen da eta zahartzarora helduko

zaio. Denbora horretan guztian, irri egin, sufritu, maitatu, amestutu... izanen du.

Protagonistaren adin guztiak erakutsiko dizkigu antzezlanak: haurra zen bitartean bizitako abenturak, nerabezaroa, helduaroa, zahartzarora... guztiak pertsonaiaren hazteari buruz hitz egiten dute, nola aurkezten diz-

Sardiniako herri kantak Altsasun



Ferien egitarauaren barruan Sardiniako Orosei herriko Santu Jacu folk taldearen emanaldia iragarri da. Altsasun barna kantujiran ariko dira Sardiniako kantak abestuz. Makina bat kulturak arrastoa utzi dute Sardinian eta bateko eta besteko arrastoa gelditu da kantatzeko eran. Kantarra modu berezia dute: borobilean jarrita. Taldeko lau kide izanen dira kantuan Altsasun.

Altsasuko Erkudengo Ama abesbatzak antolatu du emanaldia. Haien eta Oroseiren arteko harremana 2008koa da. Altsasuarrak Mediterraneoko irlan kantuan izan ziren. Hurrengo urtean sardiniarrek euren ihotea nolakoa zen erakutsi zuten Altsasun. Gainera, 2014an, Oroseiko Cantores de Santa Maria abesbatzak Iortia kultur gunean kontzertua eman zuen.

Fitxa:

Testua eta zuzendaritza: Garbi Losada.

Antzezleak: Ion Barbarin, Txori García Uriz eta Montse Zabalza.

Jatorrizko musika: Javier Asin.

Koreografia: Marta Bermudez.

bazterretik

Izaskun Beunza

KITCHENLESS: ETXEBIZITZAREN ETORKIZUNA
IMAJINA DEZAGUN ETORKIZUNA, NON, ETXEBIZITZA BERTAKO BIZITANLEEN BEHARRETARA EGOKITZEN DEN. ETA HORREK, BATZUETAN, SUKALDERIK EZ IZATERA ERAMATEN GAITU.

Sukalderik gabeko etxebizitza batean bizi naiz. Sukalderik gabeko etxebizitzaren ideia eragileena da. Etxebizitza baten distribuzioa egiterakoan ez da ezer pasatzen egongela edo logeletakobat kenduz gero, baina sukaldearen desagertzea aurkako erreakzio osobitxiasortzen du. Izan ere, XX. mendean zehar, sukaldeak politikarekin, emakumearen papearekin eta familia-idealarekin erlazaturik lotutako balio ideologikoen zama eraman du. Kontzeptuak mentalitate aldaketa handia ekartzen du. Etxebizitzak daukan metro karratuengatik beharrean bere zerbitzuengatik ulertzea, baloratzea da helburua. Ideal hau laburtzeko, sukaldeari uko egitearen ideia onada, distribuzioa sinplifikatzen du eta, aldi berean, daukan eragina handi dela-

ko. Sukaldeari eskainitako gela ez duten etxeek sukalde txikia dute. Hemen dago gakoa. Ez duzu sukalde espaziorik, bai ordea janaria prestatzeko lekua. 1,20 metroko sukalde batekin bizi naiz eta janaria prestatzeko erabil ditzazkeden etxetresna elektrikoak ditut. Sukalde trinkoa edo barra amerikarra ezaguna, sukalde kolektiboaren kontzeptuari lotuta, XIX. mende amaieran agertu zen AEBetan. Sukalde kolektiboak hitz egiterakoan, eraikin batez dihardugu, non, etxebizitza ezberdinak dauden eta horietako biztanleek sukaldearen espazio erdiko goi partekatzen duten. XIX. mende amaierako New Yorkeko etxebizitzek ez zuten sukalderik edo noizean behin janaria prestatzeko toki guztiz txikia zuten, baina, eraikinak sukalde kolektiboak zuen eta, askotan, sukaldari bat. Une hartan sukalde kolektiboak partekatutako espazioa baino gehiago zen, etxe-zerbitzu komuna, sukaldari eta guzti. Era berean, hainbat familietako etxebizitzek haurtzaindegia zuten, garbiketa zerbitzua edota eguneroko bizitza errazteko beste-lako etxe-zerbitzuak. XX. mendean zehar eredu hau politizatzen da, errusiarrek kopia-



tzen hasi zirelako etxebizitza sozia-leko sistema bezala, eta bat-batean sukalde kolektiboak komunismoarekin erabat lotu zen. Politizatzen den unean sistema hau alde batera geratu zen gaur ezagutzen dugun etxebizitzaren alde. Kitchenless kontzeptua etxe-zerbitzu komunak izatera lotuta doa. Garrantzitsuena zerbitzuak dira. Etxe-lanak kanpora ateratzea da helburua. Ordaindu behar izango liratekeen lanak dira eta ordainduta-lanak diren aldetik, sukaldearen zerbitzu bihurtu beharko litzateke. Sukalderik gabeko etxebizitza etorkizuna ote da?

9:00-14:30
DIANA Altsasuko bistularien eskutik.
ZALDI LEHIAKETA ETA SARIEN BANAKETA, Zelai kalean.
ZALDI AZOKA, Zelai kalean.
ARDI LATXEN ERAKUSKETA, Foraleku kalean.
PIRINIOETAKO BEHI ERAKUSKETA, Foraleku kalean.
NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN AZOKA, Gortzia Ximenez kalean eta Foruen plazan.
Honako artisauek produktu hauek egongo dira ondo: patata, ezia, babarrunak, ogia, pastelak, gazta, kontxak, txistora, txak, txakoleak, hostobeteak, etab.
ERREMINTEN ETA MAKINEN ERAKUSKETA, Ofadiko Santakristo inguruan.
AZOKA TXIKIA (arropak, oinetakak,...), Baratzakobide plazan.
MIKOLOGIA ERAKUSKETA Labaderon. Antolatzen du: Altsasuko Mikologia Elkartea.
XXX. ARGAZKI RALLIA Antolatzen du: Altsasuko Mendi-gozaleak.
SAKANAKO V. ARTE AZOKA Iortia Kulturunean. Antolatzen du: Artebide Taldea.
10:00-13:30 IBIALDIK ZALDIZ, txikiendak, Zubetia Plazan.
12:00-14:00 KALEJIRA Sakaranga Ixaragarekin.
18:30-19:30 Enrika Zelaiari omenaldi. KONTZERTUA: OROSZ ZOLTAN - KORNEL HORVATH Iortia Kulturunean.
19:30-21:30 MUSIKA ANIMAZIOA Ken bat taldearekin Foruen Plazan.
20:10 GAURKOTASUNEKO ZINEA: "Florence Foster Jenkins".
21:30 ZEZENSUZKOA, Foruen Plazan.
IMANOL MANTEROLA, Rally 2015

Sakana

Altsasuko Feriak 2016
urriak 16

Unamuno
LACUNZA

ADE - ALBENIZ QUESOS - BERRAIN NEKAZAL ETXEA - HIJOS DE GOIKOETXEA - JEINGENAKO ESKNEKIAK - KAXO TABERNA-JATETXEA - KATEALDE - LARREZABAL GAZTANDEGIA - LUIS M. MARCOS CLAVER - MAPFRE ASEGURUAK - ORLEGHY RENOVABLES - PORTUKO OKINDEGIA - SAKANA BIDELAGUN - SAKANA MAQUINARIA

Bost urte Arte Bidean

Gaur, ostiralean, 20:00etan, mustutzea. Azaroaren 13ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko Iortia kultur gunean.

Pintura, eskultura, instalazioa, bideoa, argazkia eta zuzeneko musika. Sormen adierazpide horiek guztiak bildu ditu Arte Bidek Altsasuko V. Arte Azokan. 36 sortzaileren lanak dira, 27 sakandarrenak eta 9 gonbidaturenak. Sakandarrek ezagutzen eta gonbidapena onartu dutenak dira azken horiek. Erakusketa gaur mustuko dute. Altsasuko musika eskolako zortzi gitarra ikasle ariko dira Puri Altzelai irakaslearekin batera mustutzean. Haien ondoren Jurgi Oraa disko jartzailerak erakusketa girotzeko musi-

ka jarriko du. Oraak erakusketarako propio musika sortu du eta hura zabalik dagoen bitartean entzuteko aukera izanen da.

Sortzaile gehienak gaurko mustutzean izanen dira. Baita igande goizean ere, artisten topaketa izanen baita. Feria eguna dela baliatuz goizez zabalik egonen da erakusketa, 10:00etatik 14:00etara. Jendeak artistetako batzuk lanean ikusi, haiekin hitz egin eta haien salmahaietan neurri eta itxura ugaritako obrak ikusi eta erosteko aukera izanen du.

Hogeita hamaseiak

Iortia erakusketa gelan hainbat sortzaile sakandarren lanak ikusteko aukera izanen da: Koldo Arnanz, Helena Santano, Carlos Rivera, Sagri Mauleon, Chuffi, Bea-



triz de la Vega, Maite de Miguel, Jokin Kale, Lali Burgoa, Adela Sanchez, Bidatz Razkin, Jule Kosta, Itziar Nazabal, Maider Perkaz, Argiñe Berastegi, Rosa Arnanz, Ana Goikoetxea, Joseba Salegi, Angel Antonio Agirre, Kiki Asensio, Elena Vera eta Manolita Thunders.

Bost sortzaile sakandar berri daude erakusketan: Jose Mari Olmos (eskultura), Patxi Zelaia

(argazkia), Nagore Vilar (argazkia), Elur Oliz (argazkia) eta Yolanda Mazkieran (bideoa).

Bederatzi artista gonbidatu daude, Alemanian, Madrilen, Bilbon eta Iruñean habia dutenak: Teresa Olaizola, Javier Gonzalez, Amaia Vicente, Aurora Suarez, Armurster Klaus, Patricia Paats, Yolanda Martinez, Iñaki Otxoa eta Burubiarte.

Zozketa

Arte Bideko kideak zozketa baterako txartelak euro batean saltzen ari dira. Igandean egingo dute zozketa. Zenbaki saritua duenak kolektiboko artistek aukeran emandako lanen artean bat eskuratuko du.

Unibertsoan barna dantzan



Bidaia bat egitera gonbidatu zituen Dantzarima dantza konpainiak ikusleak larunbatean. Altsasuko Iortia kultur gunea lepo bete zuten bi emanaldietan. Konpainiako 13 dantzarekin batera beste 6 ere izan ziren oholztan. Guztien artean Izar Hautsa ikuskizuna eskaini zuten, “kosmosaren erritmoan dantza eginez”.



Trikitixa eskolek badute euren jaialdia

Igande arratsaldean ospatu zen estreinakoz Nafarroako Trikitixa Eskolen I. Jaialdia. Nafarroako geografian barna zabal dutako 10 eskoletako trikitilariak eta panderojoleak txandakatu ziren Arbizuko oholztan. Tartean Arbizuko eta Olatzagutikoa. Jaialdiak jendea erakarri zuen. Trikitixa eskolek segituko dutenez, jaialdiak ere.

Feria klikatuz

Igandean, 8:30etik 14:00etara, Altsasun argazki rallya

Feria gai hartuta, Altsasuko Mendigoizaleak taldeak 31. aldiz argazki rallya antolatu du. Memoriadun txartela duten kamera digitalekin parte hartu daiteke rallyan, gehienez 70ek. Izena eman nahi dutenek antolatzaileen egoitzatik, Erkuden kalea 8 behe, pasa beharko dira 8:30etik 10:30era. Helduek 10 euro ordaindu beharko dituzte, 5 hurrek. Izen ematearekin batera parte-hartzaileek rallyko gaien berri jasoko dute. Sei gai

Erakusketa

Iortia kultur gunean azaroaren 18tik 27ra ikusgai izanenda. Leku berean irudiak proiektatuko eta sariak banatuko dira, 19an, 19:30ean.

izanen dira eta bakoitzetik bakarra aurkeztu beharko dute, izenburu eta guzti. Argazkilariek euren jardunean etena egin eta gosaldurahi badute, 11:00etatik 12:00etara Zubezia elkartetik pasatzeko aukera izanen dute. Joan den urtean bezala Altsasukoak Herriz Herri argazki rally ligako lehiaketan parte hartzeko aukera emanen du.

Aruak

Argazkiak kalitate goreneko jpg formatuan atera beharko dira. Parte-hartzaile bakoitzak kamara eta memoria txartel bakarra erabiliko du. Azken horiek rallyaren hasieran hutsik egon beharko dira. Kontroleko argazkiarekin 36 argazki onartuko dira. Goizean zehar argazkilariek irudiak borratzeko aukera izanen dute, ez, ordea, haiek manipulatzeko. Rallyak irauten duen bitartean ezin izanen da ordenagailurik erabili.

Egingen diren argazkiak rallya-



ren ordutegian eta Altsasuko udalerrian eginak izan behar dira. Irudiak 13:00etatik 14:00etara aurkeztu beharko dituzte. Bestela,

argazkiak etxean aukeratu eta altsasuko argazkiak@gmail.com e-posta bidez bidali daitezke lastailaren 23a baino lehen.

Sariak	Helduen maila	Haurren maila
1. bilduma onena	200 euro eta trofeoa	Trofeoa eta oparia
2. bilduma onena	120 euro eta trofeoa	Trofeoa eta oparia
3. bilduma onena	90 euro eta trofeoa	Trofeoa eta oparia
Sailkatu gabeko bazkide onenaren dako saria.		
Feriak gaiko argazki onenaren dako saria.		

Musikari hungariarrak Zelaia omentzeko

Igandean, 18:30ean, Altsasuko Iortia kultur gunean

Orosz Zoltán (akordeoia) eta Kornél Horváth (perkusioa) bikoteak asteburuan Euskal Herrian barna bira egingen du. Biarritzen eta Donostian jo ondoren Altsasun ariko dira etzi. Ortzadar Euskal Folklore Elkartea eta Euskal Kultur Erakunde-

aren elkarlanari esker izanen da bi musikari hungariarren musikaz gozatzeko aukera. Antolatzaileek, aldi berean, Enrike Zelaia musikari altsasuarra omendu nahi dute, “musika, folklore eta ondasun materiagabearen ikerketa eta hedapenari egindako ekarpen zabalagatik”.

Antolatzaileek azaldu dutenez, Zoltán eta Horváth bikote “apur-



tzailea” dira, eta “jazz, tango argentinarra, Balkanetako musika eta beste hamaika eraginez osaturiko kontzertu interesgarria aurkeztuko dute. Bi artistek estiloen arteko mugak gainditzen dituzte: musi-

ka estiloak eta abardurak nahastent dituzte, sentikortasun eta gustu paregabeak agertuz. Horrela, atmosfera berezia sortuko dute euren inprobisazio eta originaltasuna ageriz”. [+www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

G

asteko >> : eguraldia

ostirala

euria: 75%

Min: 10 Max: 13

larunbata

euria: 5%

Min: 8 Max: 20

igandea

euria: 5%

Min: 13 Max: 20

astelehena

euria: 35%

Min: 12 Max: 18

asteartea

euria: 95%

Min: 12 Max: 16

asteazkena

euria: 45%

Min: 9 Max: 15

osteguna

euria: 20%

Min: 7 Max: 16

temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	22.5	1.5	0
Etbarri A.	21.6	-1.4	1.6
Altsasu	21	0	3.2
Aralar	14.4	2.4	8
Urbasa	17	-2.5	0

ilargiaren aldia>>

ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
16	22	30	7

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253

Arkinoturri Industrialdea • Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 • Iruñea

Acrylcolor
SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Bazkide zozketa

LASTAILEKO SARIAK:

1. SARIA:
Ekainberri: 2 sarrera.
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.
Aquarium: sarrera bat.
Lacturale: esneki lotea.
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.

2., 3. ETA 4. SARIA:
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.
Aquarium: sarrera bat.
Lacturale: esneki lotea.
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.

Ekain berri

CAMPING ARTAZA

>>11

galdera

Joxe Martin Lizarraga Balda

Mendizalea

Testua: Alfredo Alvaro Igoa



GUAIXE FUNDAZIOA MECNA PROIEKTUA

BERRESKURATU %80 -ra arte ERRENTA AITORPENEAN

GUAIXERI EMANDAKO diruaren zati handi bat itzuliko zaizu

Milesker zure babesagatik!

- 1. ETB1eko saio baten grabazioan parte hartu duzu, ezta?**
Ia agertuko ginen eskatu ziguten, eta han izan ginen.

2. Zein saio da?
Gailurra. Euskal Herriko zazpi gailur igo nahi dituzte. Eta haien artean Beriain dago. Igoera ezberdinak jende ezberdinarekin.

3. Nolaz aukeratu zuten Beriain?
Euskal Herriko jende asko igotzen da. Erreferentea da mendi hori.

4. Zein dira saioko aurkezleak?
Nik Andoni Aizpuru ezagutzen nuen, telebistatik. Irati Anda eskalazalea ezagutzen nuen. Batek telebistan eskarmentua duena eta, besteak, eskalatzen.

5. ETBko saioan mendira igoko zarete, ezta?
Bai, azkenean, jende desberdina mendira igotzea da. Etxarriko emakumeak, korrikalariak, artzainen bat, mendian abenturak izan dituztenak... Jende desberdina, bai.

6. Beraz, Beriainen kontura makina bat sakandar elkartu zineten, ez?
Sakandarrak 20 lagun, igual bai. Eta Euskal Herriko toki ezberdinetatik etorritako beste 10.

- 7. Zer moduz kamera aurrean?**
Hasieran gaizki. Baina gero, luza-tu zenez, ez zara ez kameraz ez Andoniz oroitzen. Azkenean, lasai.

8. Grabazioa luze egin al zen?
Luzea eta gogorra. Inoiz ez zait mendira joatea hain luze eta gogorra egin. Behin egiteko eta, bale!

9. Aldapan gora aurkezleak moldatzen ziren? Edo atzean gelditzen ziren?
Ez, ez, oso ongi. Gainera, Andonirekin biok lurbaindik igo ginen. Osoondo ibilizen, ni bezala. Eskar-

10. ETBk lan-talde handia ekarri zuen grabatzeko?
Zazpi-zortzi lagun egon ziren. Ongi. Jende jatorra. Etxean bezala ibili ginen.

11. LTD bidez ikusi ahalko da ETB1eko saioa. Kalitate onean ikustea poztekoa, ezta?
Ordua zen. Azkenean, lortu da eta, bai, ETB1eko Gailurra saioko Beriaingo atala heldu den ostegunean, lastailaren 20an, 22:20an ikusteko aukera izanen da. Baita www.eitb.eus bidez ere.